

Karkara

karkara.com

 **Orioko eta Aiako aldizkaria** · 2016ko azaroaren 25a · 378 zenbakia, 26. urtea



Siglen azpian aske

Ana Priedek hartu du sozialistek berreskuratutako eserlekua. Bakarrik dagoen arren, beste alderdiak bidelagun izan nahi ditu bide honetan.

11

Akuilua hartuta
Alazne Arruti

20

Argazkiak
Azaroa Etxeluzen

25

Erreportajea
Maria Auxiliadora

34

Udalaren txokoa
Krisia



OPARITU HISTORIA ETA ISTORIAK

36€ URTEAN

GABONETAN OPARITU KARKARA

Eki-lorea
belardenda

- Kosmetika naturala
- Erremedio naturalak
- Pisuaren kontrola; Dietista
- Naturistak; kontsulta asteazken eta ostiralak
- Elikadura ekologikoa, makrobiotikoa, zeliakoa...

Garbiñe Hernan

- Naturopatia
- Iridologia
- Nutrizio zelurrara
- Aromaterapia
- Homeopatia
- Kirol masajea eta terapeutikoa
- Osteopatia
- Hipnosi klinikoa

Ana Isabel

- Terapia naturalak
- Reflexologia
- Iridologia
- Sukaldaritzaren energetikoko irakasle
- Haurrentzako sukaldaritzaren naturala
- Dieta pertsonalizatuak

ZOKETAII
Gabonetako atarra

Eusko Gudari, 5 - 20810 ORIO Tel. 943 831 377 ekiloreabelardenda@gmail.com

ARRANDEGIA

Astelehenerdik larunbatera 08.30-13.30 Astearte, asteazken eta ostegunetan 17.00-19.30

Kostera

Arralak
zure arrandegia

EUSKO GUDARI, 4 943 133 580

378

Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea
 20810 Orio
 943 83 15 27
 karkara@karkara.com
 www.karkara.eus

Editorea
 Karkara taldea
 kultur elkartea

Erredaktore burua
 Miriam Garcia

Erredakzio taldea
 Jon Agirresarobe
 Onintza Aiestaran
 Olatz Artola
 Iñigo Exposito
 Jon Garate
 Elizabete Manterola
 Intza Unanue
 Rikardo Uzkudun

Publizitatea
 Sonia Albizu

Ale honetako kolaboratzaileak
 Joxeba Altuna,
 Alazne Arruti,
 Eli Huegun,
 Iñaki Iturain
 Lukene Lizaso

Diseinua
 Saioa Perona

Banatzaileak
 Ibon Berasaluze (Orioko)
 Eli Irureta (Aia)

Inprimategia
 Gertu Koop. E. (Oñati)
 Lege gordailua SS-346/90
 ISSN 1132-1105
 Tirada 3.450 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esaneren edota iritzien erantzukizunik. KARKARAN argitaratutakoa berreman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.

Aurrerantzean *Hasi bertsotan* atalean puntuka arituko dira bertsolariak. Oraingoan Joxeba Altunak bota du bertsoa *Ontziek bota dute txikota portuan* puntuarekin. Hurrengoari ere jarri dio puntua.

PUNTUA JARRITA

JOXEBA ALTUNA

Ontziek bota dute txikota portuan

noiz arte e(g)ongoia barkuak lehorrean?
 Mozkor gehiegi daude Orio aldean,
 festak ondo pasatu umore onean!

Oriok patroia du aurten zarauztarra, komeni izango da ondo agintzea; aurtengo denborada hobe izatea, Reala bezalaxe olatu gainean!



Gorka Aranberri da Orioko patroia berria. BORJA GUERRERO

Hurrengoari puntua: Oporrak bertan dira Gabonetakoak

Publizitatea kontratazeko:
Karkara
 688 859 682 (Sonia)
 publicitate@karkara.com



karkara.eus

TOKIKOM



LAGUNTZAILEAK



Aiako Udala



Orioko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAK
 (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Carmen eta Txomin
ARRANDEGIAK



943 83 05 37 / 943 83 27 47

2GURPIL



Baxoalde 2 - 3 - 20610 Orrio (Gipuzkoa)

Tf 943 835 980 www.2gurpil.com bigurpil@hotmail.com

urbide
iturginak s.l.

Iturgintza - Berogintza

Birkaita Kalea, 4
20800 Zarautz
943 890 069
urbideiturginak@gmail.com
www.urbide.es

URAITZ
Lurrinlogia
jantzi-ogarriak

Endalaitz Tf. 943 83 18 97

ANOBGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak - beira bikoitza
- segurtasun beirak - dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak - barandak - kristal mota guztiak...

Orla Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

ttipi ONDO PASA
SAN NIKOLAS
JALAK

ttapa

943259695
tripittapa.olhane@gmail.com
Eusko Gudarien, 15 - 20810 Orrio

Alustiza Autobusak
Alustiza Bidaiek S.L.

Autobus litera eta
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
Bidaiatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943 13 28 93 / 83 08 80 / Mugikorra: 656 78 30 01 / 656 78 29 99

Zarautz > Hilerrien kudeaketa
> Hileta zerbitzu orokorrak
> Zerbitzu iraunkorra

Hileta Zerbitzuak

Harrespil Hilerrri Zerbitzuak

Araba kalea, 35 · ZARAUTZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxa: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net



emakume arropa - neurri bereziak
kinkiladenda - barruko arropa

argine

15eko deskontua familia ageriaz sartutakoentzako

Eusko Gudari, 9 - Orrio
943 134 889 argine/jantziak

HAUR ETA HELPUENTZAKO JANTZIAK

ROSA

GARBIÑE ARRILLAGA
ARITZAGA KALEA, 2 - TEL. 943 13 19 43

www.facebook.com/rosmagariak

15ko DESKONTUA FAMILIA UGARENTZAT

Seguros Bilbao

Tel: 943 111 600
688 714 869

Santi Barranco
Orioko ordezkaria

Endalea Esperantza, 1
20810 Orrio (Gipuzkoa)
e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com

ARISTERRAZU
jatetxea

Andatza auzoa AIA
Tel. 943 83 45 21

EKILORE
GARBIKETAK



626417841
ekilore@outlook.es

eduzitologia
ANTILLA
jatetxea

Abeslari kalea, 2 - Tel. 943 83 23 00

Erraldoiekin laguntza

San Nikolas Festak gainean ditugu dagoeneko. Zoritzarrez azken festetan jende falta daukagu Pello eta Nikolasa erraldoiak kalera atera ahal izateko eta horregatik gatoz zuengana laguntza eske. Laguntza nahikoa lortu ezean Pello eta Nikolasa ez dira kaleetan barrena dantzan ibiliko.

Festak Abenduaren 5,6,7 eta 8an dira, eta aurreko astean Azaroaren 28tik Abenduaren 1era arratsaldero bilduko gera Kultur Etxean nahi duen guztiari erraldoiak dantzan jartzen erakusteko.

Laguntzeko prest bazaude bidali emaila oriokokonparts@gmail.com helbidera, edo bidali whatsapp 619455810 telefonora –Imanol–. Zatoz eta lagundu herria giroten. Mezu ahalik gehien zabaltzea eskertuko genuke. ■ **Pello eta Nikolasa taldea**

GuraSOSen manifestazioa azaroaren 26an

Zure aukera da lelopean manifestazioa antolatu du GuraSOS elkarteak azaroaren 26an, arratsaldeko 17:00etan, Donostiako Araba plazatik abiatuta. Euskotren geltokiaren ondoan dago Araba plaza.

Zergatik lelo hori? Hondakinen kudeaketa zure esku dagoelako, zure aukera delako bidea ematea Gipuzkoako

ko osasunari eta adostasunari.

GuraSOSek deitu du manifestazioa. GuraSOS erraustegiak gure seme-alaben osasunean izan ditzakeen ondoriok sortutako kezkak bultzatutako mugimendu anitza da.

Oriotar ugarik egin dugu bat mugimenduari eta azaroaren 26an manifestaziora batzeko deia egiten dugu. Indarrak batzera eta erraustegiaren kontrako manifestaziora joatera animatu nahi dizugu oriotarrak eta aiarrak, oraindik proiektua gelditzeko garaiz gabiltzala sinesten baitugu.

Beraz, animatu eta etorri azaroaren 26ko manifestaziora! ■ **GuraSOS**

Argi gelditu da: xaltxa badago!

Azaroaren 12an Xaltxa Badago jaialdia antolatu genuen lehen aldiz. Emakumeok espazio publikoan dugun presentzia indartzea genuen helburu. Musikaren mundua oso masulnotuta dago eta, batzuetan konturatzen ez bagara ere, kontzertu gehienetan ohol-tzan dauden guztiak gizonezkoak dira. Horri buelta emateko, Etxeluze den bezalako espazio publikoa okupatu genuen emakumeok. Baina ez dadila egun bakar batez izan!

Buru-belarri aritu ginen festa antolatzen, gogotsu; eta jendearen erantzunak grina are gehiago piztu digu. Eskerrak eman nahi dizkiegu Etxeluzera eta Salaxora hurbildu ziren guz-

tiei. Sekulako energia ona sortu zen! Eskerrak, baita, azaroaren 15ean Emakume Bidaiarien mahai-ingurura etorri ziren guztiei eta, batez ere, beren esperientzia kontatu ziguten emakumei. Zoragarria izan zen!

Baina dena ez da festa. Gogoratu, gaur, azaroaren 25ean, Indarkeria Matxistaren aurkako eguna dela. Emakumeenganako indarkeriarekin tolerantzia zero izango dugula eta hilketa gehiago ez dugula nahi adierazteko, el-karrateratzea egingo dugu herriko plazan, 20:00etan. *Woman in Black* ekimenarekin bat eginez, beltzez jantzita etortzea eskatzen dizuegu. Plazako lurrean etzango gara, indarkeria matxistak utzitako biktimak gogora ekartzeko eta instituzioen pasibitatea salatze-ko. ■ **Orioko Xaltxerak**

Tradizioz, blusarekin

Kuadrilla eguna izango da abenduaren 7an. Festetan egun hori ospatzeko ohitura galdu egin zen, eta, aurten, berreskuratu egingo da. Lehen, kuadrilla eguna egiten zenean, lagun talde bakoitzak bere blusa jantzen zuen, talde izaera ematen zion jantzia. Eta festaren antolakuntzatik ohitura hori berreskuratzera animatu nahi dituzte herriko kuadrillak. Izan blusa, kamiseta edo antzerakoa, baina kuadrilla bakoitza bereizgarri egingo duen jantzi hori jantzteko dei egiten diogu herritarrei. ■ **Orioko Festa Batzordea**

■ ZORIONAK!

Sanroman jaien antolakuntzan jarraitzeagatik

Auzotar bat aritzen zen duela lau urte arte Aiako Altzola auzoko festen antolakuntzan.

Ezbehar baten ondorioz, 2013an ezin izan zituen festak antolatu eta urte horretan ez ziren sanromanak ospatu Altzolan.

Orduan, auzokidearen testigua beste auzotar batzuk hartu zuten eta geroztik urtero ospatu dira sanromanak Aian. Aurten ere ostiraletik iganderako egitarau zabala antolatu dute!

■ JAIOTAKOAK

■ Unai Gaztañazpi Udabe, Orion, urriaren 25ean.

■ Aiora Olasagasti Aranberri, Orion, urriaren 18an.

■ HILDAKOAK

■ Ramon Peña Sarasua, Orion, azaroaren 6an, 74 urte.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria Karkaran jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:

943 83 15 27



Ortzaikako sanmartinetan Niko Nok pailazoaren ikuskizuna izan zen.



San Roman jaiak ospatu dituzte Altzolan. Erromeria izan zen.



Santa Zezilia egunean herriko musikariak kalera atera ziren.

Neguan ere, ezer ez eta festa...

“Eguraldia etxean gelditzeko aitzakia izanagatik, kalera atera eta festan aritzeko aitzakia izan dugu”

Bukatu dira uda partean erredakzioko leihotik sartzen ziren argi printzak, laneko agendak itxi eta hondartzara joateko gogoia pizten zuten izpiak. Azaroan eguzkirik bada, hotzean gozatzzen duen hori izango da; baina, tamalez azaroan apenas izan dugu eguzki egunik.

Euria egin du, kasik hamaika egun jarrian. Sofan eroso jarri, mantarekin tapatu eta filmak bata bestearen atzetik ikusteko giroa egin du asteburuetan, liburuak hasi eta bukatzeko modukoa.

Baina, eguraldia etxean gelditzeko aitzakia izanagatik, kalera atera eta festan aritzeko aitzakia izan dugu nola urriaren bukaeran, hala azaroan: Mandalaren hamargarren urteurrena ospatzeko festa, Arkupek antolatutako Moda Astea, Aiako Urdaneta auzoko festak, Ortzaikako San Martin jaiak, Xaltxa badago jaialdi feminista, Altzolako San Roman jaiak, Dispersioff jaialdia, Santa Zezilia musikarien eguna...

Gutxitu dira eguzki egunak. Eta, nahiz eta kostaldean uda partean izaten den herriko festen garaia – Orion ekainean sanpedroak eta Aian abuztuan San Donato eta San Lorentzo jaiak –, gauak luzeagoak diren honetan ospatuko ditugu Orion sanikolasak.

Ohi bezala, abenduaren 6a eta 8a hartuko ditu festak eta asteen zehar izango dira. Astelehenean iluntzean hasi eta ostegunean bukatuko dira.

Lau eguneko egitarau oparoa osatu dute elkarlanean eta, ohi bezala, KARKARA aldizkariaren barnealdean topatu ditzakezue egunez egun izango diren jarduerak.

Txintxo ibili, gutxi gastatu eta bueltak amari!

Nola bizi duzue Herribil? Prestakuntza handia al dakar?



“Ezin izango dut egunean bertan lan egin”

Hamabigarrena ospatuko dugu aurten. 12 urte, Herribil ikuskizuna antolatzen hasi ginela. Hasi ginela diot, Harribilek antolatzen baitu herriak parte hartzeko helburuarekin. Hortik dator izena.

Azaroa hasiera aldera herriko hainbat eragileei deialdia egiten zaie eta bileratxo bat egiten dugu, zein taldek hartuko duen parte zehazteko eta pizkanaka ekitaldiari forma ematen joateko. Urtez-urtez, geroz eta gehiago kostatzen da talde desberdinak animatzea. Beraz, ea denon ilusio eta gogoarekin Gabonei hasiera emateko herri ekitaldi honi bizirik eusten diogun.

Mireia Atorrasagasti



“Oso polita da. Datak ere oso aproposak dira”

Duela hiru aste edo egin genuen bilera, Harribilek deituta. Berak daramate honen gidaritza.

Bakoitzak zer egin genezakeen esan genuen. Gure kasuan, dantzatzeko aproposa den kanta bat ikasi genezake edo dagoeneko badakigun kanta bat abestu. Horrelakoak adosten ditugu.

Gero, bakoitzak bere kontura egiten du lan eta, ekitaldiaren aurretik, entsegu orokor bat egiten dugu.

Oso polita izaten da. Datak ere oso aproposak dira horretarako, Gabonen bueltan izaten baita. Aurtengoa 12. urtean izanik, errutina ere bihurtu da eta, ondorioz, buelta bat eman dakiogegu eta denon artean berritu.

Eneko Olariaga



“Herria biltzen duen zerbait da Herribil”

Herriar gisa ez, baina kanpotik datorren pertsona modura esan dezaket izena oso ongi duela jarrita emanaldiak. Izan ere, herria biltzen duen zerbait da Herribil. Eta *bilketa* hori erabat txalogarria da norbanako bakoitza bere aldetik dabilen garai honetan.

Musika eskolaren ikuspegitik, aukera bikaina da Herribilen parte hartzea. Normalean gure lana Danbolineko ikasleen gurasoek ikusten dute eta saio hau aukera polita da beste jende batek ere ikusteko.

Ilusio handiz hartzen dugu Herribilen parte-hartzea. Azaroan hasten gara prestaketekin.

Elena Errasti

azkue
karrozeria

Ubegun industrialdea, 7
20809 Aia-Orio
Tf/fax: 943 83 51 86
carroceriasazkue@hotmail.com

Herri baten bizimodua errezeta liburutan jasotzen da. Lagunarteko otorduak, etxeko jan ohiturak, baratza, ibaia eta itsasoa, jatetxeetako sukaldeak... ikasteko lekuak dira denak. Mahaiaren bueltan gauza asko egin daitezke. Interesgarrienak bi: jan eta berriketan egin. Goazen Orioko errezeta liburua idaztera.

“Ordeñadorak lan asko ematen digu, ezin ordenadorearekin jardun”

Jose Luis eta Jose Migel Odrizola Lertxundi
Agerre Buru baserriko irasagarra edo menbrilloa gazta irabazlearekin



JON AGIRRESAROBÉ

Osagaiak

Etxeko sagarra kilo bat.
 Azukrea libra bat.

Nola egin?

Hori da proportzioa. Askok azukre gehiago botatzen diote baina Jose Luisentzat gozoegia gelditzen da. Sagarrak ondo garbitu, hazia kendu eta lau pusketetan eginda sartzen ditu kazuelan, azal eta guzti. Azukrea gehitu eta pix-

kanaka nahastuz joaten da. Irakin egin behar du mantso-mantso. Argi besoa erre gabe, sagar mamiak salto egiten du-eta. Irabia-gailu baten laguntza dena txikitu eta purea egiteko tresnatik ere pasatzen du. Hozten utzi eta eman denbora bat dastatu aurretik.

Gomendatutako edaria

Ardo beltza.

3021 gazta eta 266 epaile, mundu guztikoak. *International Cheese Festival* lehiaketan Aiakoa da urrezko domina lortu duen gaztetako bat, zerrenda ofizialaren arabera inguruko bakarra. Kultur Atelier Orioko komunikazio enpresa aritu da Artzai Gazta elkartearentzat Kurasaaleko ekimena antolatzen. Iñigo Exposito kazetari eta Karkarako kidearen eskutik itzuli da gazta Agerre Buru baserrira. Astelehena alaitu diegu bisitarekin. Guretzat ere gozamenaren izan da.

Zorionak. Hara, Iñigoren eskutik, gazta irabazlearen erdia.

Jose Migel: eskerrik asko. 4 gazta aurkeztu genituen; lehen ere gazta onduak lortu zuen saria Munduko Txapelketan. Martxoaren hamalauko lotea da, sei hilabete ditu. Lehiaketa pixka bat lehenago egin izan balute krematsuagoa egongo litzateke. Egun dezente egin ditu hara eta hona baina itxuraz dago oraindik. Zuen bitartez jakin dugu izendapenaren berrari. Arkume garaia tokatu da eta ezertarako astirik gabe gabiltza. Internet bidez bidali dute zerrenda baina *ordeñadorak* lanak ematen dizkigu eta ezin ordenadorearekin jardun.

Noiz hasi zineten gazta egiten?

Jose Luis: 30 urte izango dira. Umetan etxe ondoan gazta fabrika zegoen, Aiako eta Asteasuko baserrietako behi esnearekin gazta egiten zuten. Laguna nuen bertako semea eta fabrikari ibiltzen ginen saltsan. Amaren baserrian ere gazta egiten zuten; bi osaba genituen Aralarren artzain eta haien gazta saltzen genuen etxean. Ardiak eta behiak genituen eta

behi gazta egiten hasi nintzen poliki-poliki, sukaldean, amarekin. Soldadutzara neronek egindako gazta eraman nuen.

Zuen ardiak egunero doaz larrera. Kalekumeoi kosta egiten zaigu gauza hauek ulertzea.

JM: Artzain askok ukulitik atera gabe hotelean bezala itxita edukitzen du artaldea. Etxean larre handirik ez dugu baina egunero ateratzen ditugu. Udan Ernio Txiki eta Pagoeta gainera eramaten ditugu, lehenak maiatzean eta azkenak San Fermin aldean. Larreko bueltak, altuerak eta mendian jaten duten belar apurrak aparteko zaporea ematen dio gaztari, esneak koipe edo grasa gehiago izaten baitu. Ardiak zein gustura joaten diren ikusi besterik ez dago.

Kurasaaleko festa arkume garaian tokatu da. Lan garaian gaztoz Agerre Burura, artzainak bakean utzi behar direnean.

JM: Gauetan txandaka ibiltzen gara: anaia ordu bata arte egon bada ni hiruretan jaikitzen naiz. Ardiak ez du abisatzen noiz doan ume egitera eta ondoan ez bazaude jaiotzerakoan hil daiteke arkumea. Eta pena hartzen duzu.

Hori bai, osasun kontrolek erraztu digute lana. Ekografia egiten zaie ardiei eta berrogei egunekin badakigu zein dagoen ernari. Horri esker arkume garaia kontrolatzen dugu. Esaterako, udan uztaillaren 23tik abuztuaren 15era ahariak apartatzen ditugu: Agerre Burun gabon bueltan ez da arkumerik jaioko, auzokoaren aharia etorri ez bada, behintzat.

Gazta bi egunetik behin egiten duzue.



“Larreko bueltak, altuerak eta mendian jaten duten belarrak aparteko zaporea ematen dio gaztari”

“Salmenta garaian onenak apartatzen aritzen gara, bidali bezperetan denak probatzen ditugu, hamazortzi edo hogeï”

JL: Abenduaren erdi aldean hasi eta ekainaren amaieran, sanpedrotan, bukatzen dut gazta egiten. Bi egunetik behin egiten dut, artisauak gara eta ordu pila behar dira. Egunean hogeita bost gazta inguru egiten ditut. Urte amaierako esneak koipe edo grasa gehiago izaten du. Ekainean edo uztailean sei litro eta erdi behar dira kiloko gazta bat egiteko, abenduan bost litro nahikoak dira.

Ardi esnea tankean egoten da hoztuta, hiru gradutan. Tu-bara eramaten dugu bonba batekin. Han 30 gradutara berotzen dugu esnea eta gatzagia gehitzen zaio. Hogeï-hogeita hamar minutuz uzten da mamia egiten. Ondoren hogeita hamasei graduren bueltan txikitzen eta nahasten dugu. Gatzurabota duenean prentsatu egiten da, moldetan sartuta, bost- sei orduz. Gero, gatz uretan edukitzen dugu hemeretzi orduz hamar bat gradutan. Handik kamerara, noizik eta behin buelta ematen zaio. Gazta hori ezin da bi hilabetetan jan, baina gehiago ontzen ditugu.

Erreza ematen du. Non dago sekretua?

JL: Gatzagiak naturala eta garbia behar du. Arkumea hil berri- urdailetik ateratzen dugu, eta ahal bada esnea izan dezala. Baina arkumea zalea da zakarra edo belar ondua jaten. Horretarako arkumeak aparte jasota izaten ditugu hil aurretik, bi edo hiru egunez.

Aurki etxea handitu beharko duzue sariak sartzeko.

JM: Aurten poliki doa urtea. Gipuzkoako Txapelketa izaten da iraillean Legazpin, eta hirugarren egin genuen. Aiaran eta Plentzian sariak lortu ditugu. Ordizian azken zortzi urtetatik zazpitan sartu gara hamalau onenetan. 2012. urtea izan zen ona: Bergaran lehen saria, Legazpin hirugarren, Euskal Herriko Txapelketa bosgarren eta Ordizian laugarren.

JL: Artzain askok esaten dute kameratik hartutako lehenengo aurkezten dutela. Ez dut sinesten. Saltzeko gazta laurdenak eta erdiak zatitzen ari garela argi ibiltzen gara, ustez onenak apartatzen. Lehiaketara bidali bezperetan apartatutako denak probatzen ditugu, hamazortzi edo hogeï agian.

JON ANDER MAIZA AROZTEGIA



**LEIHO ISOLATZAILEAK
PVC - ALUMINIOA**

690 99 39 32 / 943 30 07 88

ventanasmaiza@gmail.com

www.carpinteriamaiza.com

Antxiola kalea 19, 1º C 20810 ORIO

**Katu
Horia**

ALBAYAZITZA KILIKO

ESTROPALARI, 10

20810 ORIO

tel. 943 11 66 99

LARRIANDIA

888 89 11 29

www.katuhoria.com



URANGA

burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

fer.uranga@euskalnet.net

Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5



Imanol Illarramendi

Aia (Gipuzkoa)

**KORTABERRI
arotz lanak**

kortaberri.arotza@hotmail.com

665 70 33 47

**gizarte
kutxa**

libe
dietetika
elikadura aholkularitza

eusko gudariak 35 - ORIO

943 53 64 94 - 697 23 86 56

LUXARBE
igeltseritza

Igeltseritza orokorra,
denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu
konpromisorik gabe

Lan txukuna
eta merkea

Tfnor: 943 83 59 00

Auto Azkue



Tf: 943 130 438

Auto Azkue

ARDATZA modas
Eusko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO

TAILER MEKANIKOA AUTO LAN



Pelotari 5, Orio
943 83 00 34

Zure Konfidantzazko
Gertuko Tailerra

KOLON TXIKI
atzeritza
jaleak.com



Herriko Enparantza, 4
ORIO
Tel. 943 83 00 44

ITZIAR
kirolak



Tel. 943 83 31 03

Lizaso
dekorazioa

Tf:
943 83 07 84

Faxa:
943 24 87 15

Eusko Gudari, 48

Bisitan datorkidan munstroa



Alazne Arruti Bengoetxea

Baina nik ez dut zuen erruki bila negar egiten. Ez beti. Amorr handiz ere negar egiten dut

Ni ere bisitatu izan naute maiz munstroek. Gaueko 00:07etan zein egunez uxatu nahi izan ditut mamuak, baina zinez ez da batere erraza. Haur batek beldurra izatea normaltzat hartzen da, baina esadazue, zinemako argiak piztean sikatu ditudan malkoez gain nola ikusten ote dituzue ene bestelako negar saioak? Agian emakume jaio izana leporatuko didazue, hileko egun gorrietan nagoela eta hormona kontua delakoan ene penak husteko baimena eman. Baina nik ez dut zuen erruki bila negar egiten. Ez beti. Amorr handiz ere negar egiten dut.

Zaila da maite eta maitatu izan duzun edonor agurtzea. Egun batetik bestera edota hilabete luzeetako borrokaren ostean amildegi sakonari irensten uztea. Eta tamalez, gero eta maizago gertatzen da. Minbizia. Beldurrez ahoskatzen dut nik ere. Zipriztindu izan nau bere kolore ilunak, eta orban horiek ez ditu denborak erraz desagerrarazten.

Zikindu nau eta beldur naiz beste behin gertatu daitekeelako. Ahoratzen dudaretik, arnasten dudaretik nigan ere jaio daitekeelako. Horren aurka zerbait egin nahi dudalako eta benetan zer egin ez dakidalako.

Garbi daukadan gauza bakarrenetarikoa zera da, ez nagoela nire amets gaiztoak errealtate bilakatzen ikusteko prest. Eta behin egiak aitortzen hasita, jarrai dezadan: azkenaldian inguruan darabilkidan munstroa Zubietako errauskailua da. Ez dut nigandik gertu eraiki dezaten nahi. Baina bihotza ere badudanez, ez beste inon eraiki dezaten ere. Aire garbiak bira gaitzala!



Onintza Aiestaren Artetxe

Kontatzen dena, bada



arak eta Naizek, urrian, Portugaleten, herritar anonimoekin egindako esperimentu batek zer pentsatua eman dit. Labur esanda, parte-hartzaileei Lucio Urbubiaren, Iñigo Cabacasen eta Yolanda Gonzalez argazkiak erakutsi zizkieten eta argazki horiek zer sentiarazten zien galdetu zieten. Batzuek ezagutzen ziztuzten, beste batzuek, ordea, ez.

Esperimentuaren ondorioekin kezkatuta, hurrengo belaunaldiari zer eta nola kontatu nahi diogun galdetu diot nire buruari. Kontatzen dena, bada eta izango da; kontatzen ez dena, berriz, ez da. Transmisio lan horretan etxekoen, lagunen, inguruko eta, nola ez, hedabideen zeregina ezinbestekoa da. KARKARAK, Orioko eta Aiako herri aldizkari den neurrian, ere badu bere egitekoa.

KARKARA denona da: KARKARA laguntzaileena, herriarena, irakurleena, kolaboratzaileena, eta kontakizuna denon artean egitea ederra litzateke. Izan ere, ez dago errelato bakarra, aitzitik, egia asko daude. Ez hori bakarrik, denok daukagu zerbait kontatzeko eta edonor izan daiteke kontalari.

Beraz, hasi arkatzak zorrozten zuen istorioak entzuteko eta irakurtzeko amorratzen gaude-eta!

“Ez zait bidezkoa iruditzen alkateak lan egiteko eskatzea eta berak kolpe zorrik ez jotzea”

Ana Priede Merchan

PSE-EEko zinegotzia

Ana Priede Merchan -Donostia, 1970- sozialisten ahotsa da Orioko udal gobernuan. Azken hauteskundeetan galdutako eserlekua berreskuratu zuten. Oso pozik dago horregatik, beragan konfiantza izanagatik eta aukera bat emateagatik; baita gehiengorik ez egoteko eta negoziazio bidez gauzak martxan jartzeko aukera zabaltzeagatik. Konfiantza horri erantzun on bat ematea espero du.

TESTUA: OLATZ ARTOLA

ARGAZKIAK: KARKARA

Jaiotzez donostiarra den arren, bost urte zituela Oriora etorri zen; garaiko giroak hala behartuta, segurtasunagatik, aitak lan egiten zuen *Explosivos rio Tinto* fabrika itxi eta Galdakaoko egoitzara eraman zuten. Bilbora joan ziren bizitzera, baina, han 10 urte pasa ondoren, hiritik herrira itzuli ziren. Orain, Bilbora itzultzen denean, arreta ematen dio hiriak izandako aldaketak. Urte oso ilunetan bizi izan zen bera eta orain zeharo aldatuta ikusten du. *Begira alkate onbaket zer egin dezakeen*, dio Priedek. Esparru pertsonaletik politikora egin dugu salto eta mamira joan gara:

Joxe Anjel Zalduari alkate izateko babesa eman zenion. Zergatik hartu zenuen erabaki hori?

Printzipio kontua da. Beti pentsatu izan du alkatea herritarren gehiengoak aukeratu behar dutela eta ez dela zinegotzian baturarekin hautatu behar. Hauteskunde hauetan zerrendarik bozkatuena EAJrena zenez, nire ustetan, Joxe

Anjel Zalduak izan behar zuen alkate. Nire bozkarekin oriotarren gehiengoaren erabakia defendatu nuen.

Udal taldea osatu bezain pronto harrotu ziren lehendabiziko hautsak, ordainsariarekin eta liberazioekin.

Uztailaren 7an hartu zen erabaki hori. Nik aurreko egunean, uztailaren 6an, arratsaldeko 19:00etan, izan nuen EAJren asmoaren berri. Miriam Uranga Oraineko zinegotziarekin bilera bat izan nuen eta berak kontatu zidan guztia.

EAJren asmoa alkatearen ordainsaria 60.378 eurokoa izatea zen eta bost zinegotzi jeltzale liberatzea.

Izugarri harritu nintzen. Astakeria bat iruditu zitzaidan. Bost zinegotziek soldataren maila altuena izatea zen asmoa. Aurreko legegintzaldian 22-23 mailan zeuden liberatuta zinegotziak eta Beñat, alkatea, 24an, lan kargaren arabera. Maila altuena 30 da. Eta, EAJren asmoa 28an liberatzea zen, hau da, oso maila altuan. Bost horietatik, alkatea %100ean liberatzea, del Hoyo eta Campos %50ean, eta Cotado eta





Bello %33an liberatzea zen asmoa. Salsamendik ez zuen onartu hori, beraz, berak ez zuen liberaziorik. Bidegabekeria hori ikusita, alkatearekin harremanetan jartzen ahalegindu nintzen. Hurrengo eguneko 15:30ean lortu nuen berarekin hitz egitea. Liberazio kopurua -normalean gutxiago eta hainbat alderditakoak izaten dira, gobernuan dena delako alderdia egonda- batzordeetan zuten parte hartzeagatik zela argudiatu zidan. Soldatarena, nola bere buruari, hala besteei, %100a ez, %110a exijituko zielako zela azaldu zidan. Argudio hutsalak iruditu zitzaizkidan.

Arratsaldeko 17:30ak jota zeuden eta 19:00etan udalbatzarrera genuen. Ez nuen denborarik, baina erabaki bat hartu behar nuen. Ekonomikoki udalarentzat egokiena zena lehetsi nuen. Alkatearen soldata jaistea aukera bat zen -Solaberrietak 52.744€ irabazten zituen-, baina gehiago aurrezten genuen bi liberazio kenduta, kasik 22.000 €.

Orduan, alkateak bere aurreneko proposamena aldatu egin behar izan zuen. Nik bultzatu nuen neurri honek, legealdian, 88.000 euro inguruko aurrezkia suposatzen du.

Bi urte pasa dira geroztik...

Eta denbora honetan bere argudioei arrazoia ematea espero nuen, baina ez da horrela izan. Ez du ez %110, ezta %70a eman ere. Bi urte hauetan hartu dudana erabakirik zailena izan zen hura. Hartu bezain pronto damutu nintzen, hurrengo egunean. Berriz ere gaiari heltzeko garaia dela uste dut, hartutako erabakiak berriz ere auzitan jarri daitezke-eta.

Sigleibegiratu ordezkari proiektuei begiratzen diozuela esan

“Soldaten erabakia hartu bezain pronto damutu nintzen. Berriz ere gaiari heltzeko garaia dela uste dut”



zenuen hauteskundeetan aurretik hainbatetan...

Eta, zorionez, alderdi guztiekin akordioetara iristeko aukera izan dut. Eztabaidatzeko eta adosteko borondatea daukate alderdi guztiek eta oso eskertua nago horregatik. Arazoa zera da, akordioetara iristeko denbora eta lana ezinbestekoak direla, eta, Ordenantza Fiskalekin gertatu den moduan, gobernuak lana ez duenez behar bezala egiten, kosta egiten zaigu adostasunera ailegatzeko. Gauzak ezin dira edonola eta edonoiz egin, bereziki lana taxuz egiteko hainbatetan eskatu zaionean; eta, are gutxiago, ordenantzaz edo aurrekontuaz ari bagara, funtsezkoak baitira. Bi horiek, hain justu, alkatearen eskumenak dira.

Beste alderdiekin ez ezik, herritarrekin batera lan egiteari ere garrantzia ematen diozu.

Oinarritzkoa da hori. Herriko arazoak berri izateko iturririk onena hori da. Aurrekontuetarako egin nituen proposamenek herriko hainbat eragileekin egindako bileretan dute jatorria.

Horrek guztiak ordu asko eskatuko dizkizu eta egunak 24 besterik ez ditu.

Zortzi batzorderen ardura izatea pisutsua da, baina banekien zer zegoen. Gehien amorratzen nauena ordu horietako asko nire alabei kentzea da. Niri eta berai amorratzen die horrek.

Goazen harira. Gaztelekua zegoen herrian eta ludoteka eskatzen zen. Ludoteka martxan da dagoeneko, zer nolako balantzea egiten duzu?

Gauzak neurtzeko termometrorik egokiena jendea da, eta haurrak nahiz gurasoak oso kontutu daude zerbitzuarekin. Neurri handi batean, harrera on horren errua Txurrunuskik dauka. Jende gaztea da, gogo handia duena, langilea, serioa, ondo prestatua eta inizatiba handikoa. Zerbitzua hobetzeko aldaketak ere egin dituzte, ordutegiari dagozkionak, adibidez. Zoragarria da. Txurrunuski zoriontzeari besterik ez zait geratzen.

Sozialki gorabeherak izan dira Zaragueta eta Ikañolaren artean. Nola samurtu harreman hori?

Ez dut uste gatazka sozialik dagoenik Zaragueta eta Ikañolaren artean. Hezkuntza zentroen eta udalaren arteko gatazka ekonomikoa da dagoena, diru laguntzen harira-eta. Haurrek eta gurasoek, zorionez, ez daukate arazorik elkarrekin harremana izateko.

Bakeola egitasmoak, beste eskala batean bada ere, bizikidetzat du helburu.

Bizikidetzat, elkar ulertzea eta harremanak sustatzen dituen proiektu guztiak primerakoak iruditzen zaizkit.

Esperientzia Eskolak momentu zailak bizi zituen laguntza faltagatik. Udalak zer paper jokatu zuen hor? Eta zuentzat, PSE-Eerentzat, zer nolako garrantzia dauka eskolak?

Argi gelditu dadila udalak beti babestu duela esperientzia eskola, sortu zenetik. Hasieran Matia zentroak ere ematen ziren laguntza; gerora, Matiak babes ekonomikoa emateari utzi zionean, Udalak bere gain hartu zuen karga hori. Orain arte ez zegoen Udalaren eta esperientzia eskolaren

arteko hitzarmen idatzirik. Hasieran proiektu pilotu baten gisan hartu zen; baina, orain, duen harrera ona ikusita, arrakastatsua dela ikusita, proiektua finantzatzeko duen hitzarmen bat egitea ezinbestekoa da. Horretan ari gara. Bi aldeen artean zeuden gaizki ulertuak argitu dira.

Horrez gain, proiektu horretan lanean aritu direnak esker-tzea besterik ez zait geratzen.

Musika eskolako tasek zeresana eman zuten iaz...

Musika eskolak ia 200.000 euroko kostua du urtean udalarentzat. Horri gehitu gurasoek matrikulazioen bidez jartzen dituzten 130.000 euroak eta Eusko Jaurlaritzak ordaintzen dituen 78.000 euroak. Eta, hala ere, 214.000 euroko defizita dauka. Hasiera batean, finantzaketa hiru aldeek %30a jarrita lortzen zen. Baina Jaurlaritzaren laguntza jaisten joan da eta guk bete dugu hutsune hori. Egun ia %40a Udalak finantzatzen du.

Interesgarriena musika eskola irekita jarraitzea da. Kalitate handiko zerbitzua ematen dute, kasik kontserbatorio txiki bat da. Baina kostu handia du eta denok jarri beharko dugu gure aldetik zerbitzu hori izaten jarraitzeko. Ulergarria da matrikula igotzean gurasoak kexatzea, baina, noiz arte hartu ahal izango Udalak ehuneko handi batean finantzatzearen ardura?

Udalak ordainketa egiteko erabateko malgutasuna eskaintzen die gurasoei: hilerro, hiru-hileka... hainbat erataro ordaindu dezakete. Horrez gain, beren diru sarrerekin musika eskola ordaintzeko kapaz ez diren familia horiei laguntzak ematen dizkiegu.

Iazko ordenantzetan %7ko igoera proposatu nuen nik. EAJk igoera handiagoa eta besteek izoztea proposatzen zuten. Erabakia hartu eta hurrengo egunean Danbolineko zuzendariarekin bildu nintzen. Plenoaren aurretik elkartu nintzen, eta berak esandakoaren harira gaian gehiago sakondu behar nuela ikusi nuenez, nire proposamena zerrendatik kendu nuen. Ondoren, denon artean landu eta %4ko igoera onartu genuen.

Baina, tira, ordenantza horietan, aurtengoetan bezala, antolakuntza eta lan falta egon ziren gobernuaren aldetik.

Aurten zaborraren gertatu da iaz musika eskolarekin

gertatutakoa, ezta?

Iaz gainontzeko alderdiek proposatzen zituzten zifren erdibideko igoera proposatu nuen, %8a. Hori bai, baldintza batekin. Ikusita aurten hondakinen bilketaren eta bide-garbiketaren kontratu berri bat jarriko zela indarrean eta mankomunitatea arduratu zitekeela hondakinen bilketaz –gehiago ordaintzea dakar honek–, gaia lantzeko baldintzarekin. Behin eta berriz eskatu diogu alkateari hondakin mahaia eratzeko eta gaia lantzeko; baina, ohi bezala, ez du ezer ere egin.

Beraz, argi esan nion ez niola proposamenik aurkeztuko. Ez zait bidezkoa iruditzen berak niri lan egiteko eskatzea eta berak kolpe zorrik ez jotzea; are gutxiago %100ean liberatuta dagoen bakarra bera izan da.

Abendurako gaia landuta eduki behar duzue, ezta?

Behartuta gaude, legez. Abendua baino lehen hartu behar dugu erabakia. Gobernuari informazioa eskatu diogu, elkartzeko eta gaia lantzeko. Eskatera egin diogu. Berak deitu zain gaude.

Aipatu duzun moduan, hondakinen mahaia osatzeko eskaera hainbatetan egin duzue. Beharrezkoa ikusten duzu?

Aspaldian gabilta horren eske, bereziki EH Bildu. Lehen bilkuratik dabil eskean. Kasurik egiten ez zuela ikusita, idatzi bat ere egin genuen. Udalbatzarretan gaia atera den bakoitzean baiezkota erantzun digute, baina esperoan jarraitzen dugu.

Udalean ez dago ingurumen teknikaririk. Profil horretako langile baten beharra ikusten al duzu?

Motondo edo Kofradia bezalako gaiei irtenbide bat eman behar zaie. Horrez gain, Oriok portua du, kostatuta... oso mugatuta gaude. Profesional bat izatea zeinak zer egin dezakezun eta zer ez esango dizun, interesgarria izango litzateke. Horregatik bakarrik, merezi du. Baina, edukiko zukeen lan karga ikusita, ez litzateke ekonomikoki errentagarria izango. Hortaz, beste aukera batzuk bilatu daitezke: mankomunitatearen teknikoak erabiltzea, beste Udalen batekin partekatzea, Udalean dagoen beste tekniko bat alor horretan formatzea... Alternatiba gehiago daude, baina bilatu egin behar dira.

Eta beste esparruren batean ikusten al duzu tekniko baten

“Motondo gune babestua da eta ez da hori onartzea besterik geratzen. Eredu babestu baten moduan tratatu behar dugu”

“Turismoko teknikaria behar dugu, baita gizarte ongizatekoa ere...
...kanpineko zuzendaritzarako plaza ere atera egin behar da”

“Plaza peatonala izatea eta zirkulazioa moila ondotik bideratzea proposatzen da. Honela, plaza ez litzateke biribilgune bat izango”

beharrrik?

Udal honetako pertsonal departamentua desastre bat da. As-tindu bat behar du, hutsetik hastea. Orainek, aspaldi, Udal organigrama bat eskatu zuen, egitura nolakoa den jakin ahal izateko eta, faltan nahiz soberan non dauden jakiteko. Kasu honetan ere, zain jarraitzen dugu.

Turismoko teknikoak behar dugu, baita gizarte ongizatekoa ere, Xanti Zaldua jubilatutako egingo baita. Kanpineko zuzendaria lan itzela egin du, baina urtebeteko kontratua zuenez, postu horretarako plaza ere atera egin behar da. Baina horretarako epe batzuk errespetatu behar dira, denborarekin egin behar da. Iaz denboraz egin ez zelako kontratupean hartu behar izan genuen. Bukatu da denboraldia eta plaza ateratzeko profilen zain jarraitzen dugu. Ez daukagu ez kanpinekoa, ezta gizarte ongizatekoa ere. Brigadan ere jendea falta da. Iritsi ezinik dabilta.

Hondartzako hondarrak ere hauts asko harrotu zituen. Arazoa bukatu egin al da hondar zalearen itxierarekin?

Ni ez naiz aditua, baina argi dago hondar gehiago dagoela. Dragatze lanak bukatu zirenetik hondar gehiago egotea logikoa da. Txurrukaren egoera ere hobetu egin da. Nik uste dut hondartza hori errekueratu egin behar dugula, jende mordojoaten da hara!

Adituek diotenez Motondoren lehengoratzea da aukera bakarra. Baina, oraindik, hori ez da Udalean onartu...

Gai horren inguruko bertsio mordo dago. Nik dakidan bakarra da gune babestua dela eta ez dela hori onartzea besterik geratzen. Eredu babestu baten moduan tratatu behar dugu. Ez da gustu kontua. Babestera derrigortuta daude eta eremu horretan debekatuta dauden jarduerak egiten ez direla bermatu behar dugu.

Legez kanpokoak diren jarduerak egin dira, ordea, alkatearen ahozko onarpenarekin.

Berak alde bakartasunez baiezkota ematea erabaki zuen, hegazkinekin ibiltzeko baimena eman zien. Gainontzeko alderdiak kanpotik izan genuen horren berri. Berak eragozpenik ikusten ez zuela esan zuen. Buruan sartzeko, idazkariari han egin zitezkeen jardueren informea eskatu genion. Baina Zalduari kosta egiten zaio onartzea berak nahi duena eta legeak baimentzen duena bi gauza desberdin direla.

Beste eztabaida bat... plazaren peatonalizazioa.

Aritzagatik Xixario erretegirainoko saneamendua konpondu beharra dago. Aurrekontuetan hori sartzeko eskatu nuen. Lan horien haritik, herriko plazaren berregituraketa ere egingo litzateke eta peatonalizazioaren kontuari irtenbide bat emango litzaike. Lehiaketa ireki genuen lan horiek egiteko. Hiru proiektu aurkeztu ziren. Irabazleak beste hiruro proposamen aurkeztu ditu. Horietako batean plaza peatonala izatea eta zirkulazioa –bi norabideetan, herritik sartu eta atera egiteko– moila ondotik bideratzea proposatzen da. Honela, plaza ez litzateke biribilgune bat izango. Baina horretarako baimenak behar ditugu eta EA Jri egokitzen zaio horiek lortzeko Portu Zuzendaritzarekin borrokatzea.

Eta, kasu horretan, zer gertatuko litzateke kofradiarekin?

Hor arazo bat daukagu. Erortzeko zorian dagoen eraikina da, Kofradiarena dena. Beraz, Kofradiarekin adostasun batetara



ailegatu beharra daukagu. Bi aukera daude: eraberritzea edo botatzea. Bihotzak eraberritzeko esaten digu, baina gastu handia da hori; eta, Udalak ba al dauka horretarako nahikoa diru? Ez dakit, bada. Eta, zertarako balioko lukeen ere azertu beharra dago, oso erabilera mugatuak izango baititu. Kostarekin loturiko erabilera bat eduki behar du, halaberharrez; eta hori mantentzea ez da merkea. Udalak dagoeneko nahikoa udal eraikin dauzka. Gastuak eta irabaziak parekatuta daude, beraz, inbertsioetarako tarte oso txikia daukagu.

Mutiozabal eraikina ere ia erortzear dago. Biziberritzeko asmotan erosi zen eraikina. Zein puntutan dago orain?

Turismoari eta komertzioari dagokionean, etorkizunera begirako apustua da. Herri bakoitzak bere amuak ditu eta Orio horrek desberdintzen du gainontzekoengandik. Orain eraikina eskoratuko dute, eror ez dadin. Eta, aste honetan bertan –azaroaren 15ean egin genuen elkarrizketa– proiektu bat aurkeztu digute, Mutiozabalek izan ditzakeen erabileren eta eskaini ditzakeen zerbitzuen ingurukoa.

Plan Orokorrean gune horiek guztiak lantzen dira eta herriko espazio bakoitzeko hainbat proiektu landu ziren. Nola dago gaia?

Hasieran bezala gaudela esango nuke. Hainbat bilera egin ditugu, azkena aste honetan bertan. Aukerak daude, bai, baina ez dira erabakiak hartzen. Gobernuan egoteak hori eskatzen du, erabakiak hartzea. Ez badira erabakiak hartzen ez dira aurrerapausoak ematen.

Lehen etxegabetze kasua izan da Orion. Alderdi guztien adostasunarekin onartu berri duzue etxegabetzeen aurkako mozioa. Udalak zer nolako laguntza eskaini diezaiok horrelako kasu bat jasaten ari denari?

Dekalogoak 10 puntu ditu, guk zortzigarrena onartu genuen, aho batez. Etxegabetze kasu baten aurrean udalak laguntza emango duela adostu genuen. Aholkularitza zerbitzua eskainiko lioke; eta, etxerik gabe geratuz gero,

“Txurrukako hondartza errekuperatu egin behar dugu, jende mordoa joaten da hara!”

etxebizitza bat ere eskura jarriko liekete, arazoa konpondu arte, behintzat.

Gero eta zailtasun gehiago daude independizatzeko. Ba al duzue alokairu sozialak edo antzerako formularen bat martxan jartzeko asmorik?

Bereziki gazteek dituzte gurasoen etxetik alde egiteko zailtasunak. Udalak laguntzak eman beharko lituzkeela uste dut. Azpeitiko Udalak, adibidez, programa zoragarri bat dauka martxan, oso harrera ona duena. Gazteei independizatzeko laguntzak ematen dizkie, baita banandu diren gurasoei ere... Etxebizitzak ez dira Udalarenak, berak zubi lanak besterik ez ditu egiten. Oso interesgarria da programa hori, erreferentziazkoa izan daiteke guretzat.

Etxebizitzetatik frontoira egin dezagun salto. Askotan jarri da mahai gainean gaia: dagoen tokian geldituko dela, hondartzara mugituko dela... Oso oker ez banago, plan orokorrean ere landu zen gaia.

Nik ez nuke dagoen tokian utziko. Zonalde hori oso denbora laburrean asko degradatu da. Hortik mugituko bagenu kale berri bat zabalduko litzateke, espazio ireki gehiago izango genuke. Arnasa hartuko luke gune horrek.

Arnastu... egiten den etxe kopuruaren arabera, ezta?

Udalean ez da etxer itozteko aukerarik aurreikusitua eta etxeak egungo altuera berekoak izatea planteatu da.

Eta frontoia non jarriko zenuke?

Palotasera mugitzea aukera bat da, baina Udalak lur horiek erosi beharko lituzke. Beste aukera bat Zaragueta ondora, hondartzara, mugitzea izango litzateke. Bigarren aukera hau ekonomikoagoa da, udal lurra baitira. Zein den aukera egokiena? Ez dakit.

Horren inguruko iritzia jakiteko galdeketa bat egin nahi dugu. Horretan ari gara lanean, bereziki Orain alderdikoak eta biok, EH Bilduren babesarekin. Lan hau kirol batzordetik landu behar dela uste dut.

“Frontoiaren inguruko iritzia jakiteko galdeketa bat egin nahi dugu. Horretan ari gara lanean”



Kirol instalazio batetik bestera, Arraunetzera. Nola atera dakioke probetxua eraikin horri?

78.200 euroko kostua du urtean Arraunetzeak. Diru sarrera oso gutxi dauzka, oso puntualak. Argi dagoena da bideragarritasun ekonomikoa bilatu behar zaiola, ez irabaziak lortzeko, baizik eta mantenuari aurre egin ahal izateko.

Xaltxerak taldea sortu da herrian. Zer iruditzen zaizu?

Emakumea eta bi alaben ama naizen neurrian, zoragarria iruditzen zait. Oso argi daukat berdintasuna landu beharreko gaia dela, baita genero indarkeria ere. Udalean sarrera bat egin zuten gurekin biltzeko eta beren taldea aurkezteko. Deialdia noiz egingo zain nago, baina, ez badute egiten, ni saiatuko naiz berekin harremanetan jartzen.

Hauteskundeek bezperatan bideo bat plazaratu zuen PSE-EEK. Bideoak, laburbilduz, euskara ez dakiten horiei legebiltzarrak izkin egiten dietela zioen. Zer iritzi daukazu?

Uste dut euskarak kanpaina politiko guztietatik kanpo egon behar duela, euskara baita kasu guztietan galtzaile ateratzen dena. Euskarak batzeko balio behar du, ez banantzeko. Euskara sustatu behar da, Euskaltegiak irekitzen, adibidez.

Orion harrera paregabea izan du Euskaltegiak...

Arrakasta izugarria ari da izaten. Partida 20.000 eurotik 40.000 eurora igo da, pentsa.

Kanpotik jendea etorri izanak eragin dezake erabileran...

UEMAkoak izan ziren legegintzaldiaren hasieran, Orioko datuak aurkeztu. Orioko euskararen osasuna oso ona zela esan ziguten, nola erabilera, hala ezagutza aldetik.

Orioko agenda hileroko betetzera iritsi zen Udala. Ahuldu egin zen eskaintza, baina, berriz ere martxa hartu du...

Agenda betetzeak dirua eskatzen du, inbertitzea. Argi dago hori egin beharra daukagula Orion turismoa sustatu nahi badugu, baina, bereziki, oriotarrak kanpora joatea nahi ez badugu. Jendeak aisialdiko denbora Orion pasatzeko gauzak antolatu beharra daude. Kontua da diru partida txikia dagoe-

la horretarako, eta, muga horiekin guztiekin, lan oso ona ari da egiten Salsamendi.

Hainbatetan aipatu dugu turismoa sustatzearena...

Turismoak diru-sarrerak ekarri ditzake, baina horretarako indarrak hor jarri behar dira.

Orio herri arrantzalea zen. Bost ontzi besterik ez dira gelditzen, ordea. Arrantza turismorako amu gisa ikusten al duzu?

Bai, baina berriz diot, asko lagunduko liguke turismo teknikari bat izateak.

Etxeluze gaztetxea ere ari da geroz eta martxa handiagoa hartzen. Udalak zer nolako harremana du gaztetxearekin?

Orain ari da kontu hori egosten Udalean.

Herriko Autonomia Erkidegora salto eginda... Eusko Legebiltzarreko zerrendan 21. postuan zeunden.

Betelana besterik ez nuen egin. Ni soilik herri honetako gai politikoetan inplikatu naiz, gainontzean iritzi pertsonala daukat, baina besterik ez.

Eta berak, goi karguek, askatasuna ematen al dizute zuri?

Hauteskundeetan aurkezteko baldintzetako bat hori zen, askatasun guztia izatea. Ni naiz Orioko Udalean lanean aritzen dena, beraz, nik hartzen ditut Oriori dagozkion erabakiak.

Bukatzeo, zein dira epe luze nahiz motzera daukazun helburuak?


Oinarrizko arazoei irtenbidea ematearekin konformatuko nintzateke: Estropalari kalea, Baxoaldeko etxeak, Kiroldegiko igerilekua, irisgarritasuna, bidegorria... Hori konponduz gero ondo; eta, gehiago lortuz gero, primeran! Herriarrek zergak ordaintzen dituzte, beraz, gutxienekoa da gure eskumenak diren oinarrizko gauzak egoera onean egotea. Bestalde, gobernuari lan gehiago edukitzea eta egokiago antolatzea eskatuko nioke. Bestela, ezingo ditugu urratsak eman. Akordioetara iristea ere gustatuko litzaidake.



Azaro bete-betea Etxeluze gaztetxean

Hilabete honetan jende askoren ahotan egon da Etxeluzek azaroan izan duen martxa. *Astebururo zerbait dago!* esaldia bati baino gehiagori entzun diogu. Izan ere, hiru aste bukaeratan jarraian izan dira jaialdiak gaztetxean. Skate parkearen inaugurazioarekin hasi eta Dispersioff jaialdiarekin bukatu zen Etxeluzeko azaroa; tartean Xaltxa Badago jaialdi feminista antolatu zuten Xaltxerek.





Musika epizentro

Musika kontzertuak izan dira nagusi gaztetxean antolatutako jaialdietan. Why not!? taldeak lehen kontzertua eman zuen Etxeluzen eta Gaitzak, berriz, aspaldiko partez jo zuen. Bi Bala, Parrazta, Vinagre de Moderna, Koxka, La Furia, Bertsxortan, Fly Shit... jatorri eta estilo desberdinetako musika taldeek osatu dute hila-bete honetan Etxeluzeko kartela.



Orioko Herri Ikastola

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8

TEL: 943 83 47 04

FAX: 943 13 09 38

orio@ikastola.net

www.oriokoikastola.net

PIZZERIA



KALETA

ARRANTZALE KALEA, 10

TELEFONOA: 943 24 89 46

HAIZE BERRI

taberna-jatebidea-kafetegia

Plater konbinatuak, bokatak, hamburgesak, jarioak, eguneko menua...

ostiralean Pintxo poteka!

eta etxera eramateko zerbitzua!

943 831 623

Orioko kirodegian, Erribera 1

BODEGAS

Gailur

9080 BARRIO A. 40800

Tel/Fax 943 80 91 30

www.gailurdegia.com

Amabar Erribera

ZUDUGARAI



Galaxia Teatrina

Tel. 943 83 03 80

Fax 943 83 54 32

lukazudugarai@euskaltel.net

www.teatroludugarai.com

K karkara.eus

Eskaintza berria

Eskaria



IGLESIAS SARRAILAGILEAK

24 ORDUKO ZERBITZUA

Javier Iglesias Fernández

637 723 308

iglesiascervajeros@yahoo.es

ZOBIO ORIO

- ATAK INKIZTER DITUGU
- SARRAILA-ZILINDRO ALDAKETAK
- ATAK IXTERO MALOKURRI ALDAKETA
- KOMUNITATEENTZAKO ZERBITZUA

WELTSCHE PATXI OLIDEN

PATXI OLIDEN

Hemengo haragia. Etxeko produktuak: tripaki, odolki, txakorra, txorizo, kroketak...

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10



Sagasti LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI

Tel. 943 13 00 77 - Fax. 943 53 71 50

sagasti@sagastileihoak.com

Arrantzale kalea, 65

20810 ORIO (Gipuzkoa)

GABONETAN OPARITU ARGAZKIAK

943831048

610697668



www.fotoramiro.com

Ille apaindegia

MARIJO



Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - behea

Tel. 943 13 47 29

ORIO

ITZALA

kartela jokatzeko aproposa

tel. 943 83 12 59

ondo pasa **festak!!**

BODEGON SARASUA

ERRETEGIX

ETXEKO BEREZITASUNAK

ARRAIN ZOPA

PARRILA



Eusko Gudari Kalea, 29-20810 ORIO - Tel.: 943 83 00 05



mauka

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TEL - 943 572 083

FAX - 943 571 190

lasenjo@hotmail.es

INES ASEÑO

ABESLARI, 1

20810 ORIO



Maria Auxiliadora baporea, uretaratu zen egunean, 1961-04- 28an. FOTO RAMIRO

Maria Auxiliadora Orioko arrainontzi berritzailea (I)

Donostiako Untzi Museoak *Itsas Memoria* izeneko aldizkari digitala argitaratzen du urtean behin. Azaroaren 4an plazaratutako 8. zenbakian, Jesus Mari Perona eta Iñaki Iturainen artikulu bana plazaratu ditu: Iñakiren *Una mirada al mar y a sus historias desde Orio* eta erreportaje honetakoa.

TESTUA: JESUS MARI PERONA, IÑAKI ITURAINEN

EUSKARATUA ETA EGOKITUA

ARGAZKIAK: J.M PERONAK UTZIAK

Jesus Jesus Mari Peronak, haurra zela, Maria Auxiliadora arrainontzia eraikitzeke prozesu osoa gertutik bizi izan zuen. Maitemindu egin zen itsasontziarekin, 11 urte bete zituenerako eginak zituen ontziaren marrazkiak eta apunte batzuk. Horretan ematen zituen eskolako marrazketa-orduak eta jolas-orduak.

Urteak pasatuta, 1988an, barkuaren maketa egin zuen, gero horrenbeste lo-ordu kendu eta beste horrenbeste amets-ordu ekarriko zizkion barkuaren maketa. Orain arrainontzi haren historia idatzi du.

Maria Auxiliadoraren protagonistak

Abentura eder haren lau protagonistak familia bereko lau gizon izan ziren. Estanis Sarasua Arruti, armadore eta patroia, haren bi semeak: Ignacio itsas mekanikoa eta Pako arrantzako patroia, eta Manuel anaiaren seme Ignacio -iloba-, makinetako mekanikoa.

Sarasuatarren familiak sustrai sakonak ditu Orion, arrantzeta eta arraun giroan. Arrantzara traineruan joaten ziren garaia ere ezagutu zuen Estanisek; eta traineruko arraunlari ere ibili zen -1925-1931-, bi anaiekin batera: Jose Mari eta Inazio. Azken hau arraunlari eta patroia mitikoa izan zen -1930-1967-.

Estanis 1933an Orion sortu zen *Emen Gatoztik* lehenengo arraun klubaren sortzaileetako bat zen.

Estanis herriko *San Antonio de Padua* arrainontziaren armadore izan zen, lehengusu Jose Manuel Sarasua eta Victor



Ezker-eskuin Pako eta Inazio Sarasua anaiak, erdian haien lehengusu Ignazio Sarasua. FOTO GAR



Ezkerrean, Inazio eta Estanis Sarasua anaiak eta Joakin Azkue. Eskuinean, Patxi Sarasua, Angel Iglesias eta Manuel Sarasua. FOTO GAR

Dorronsororekin batera. Ontziaren patroir ere bai, bigarren patroia anaia Manuel zela. Baina Estanisek bere ontzi propioa izatea amesten zuen, eta 50 urtetik gora zituela, San Antoniotik atera eta beste enpresa bat sortu zuen. Horretarako, beste arrainontzi bat alokatu zuen, *Jose Javier* ontzi zaharra, arrainontzi berria egin bitartean.

Ontzi berria egiteko, inguruko ontzioletara jo zuen. Baina bapora berriak egiteko eskaera asko zeuden eta luze itxoin beharko zuen. Horrela, bapora berak egitea erabaki zuen.

Ignacio Sarasua Aldaz, 1930-2014: proiektugile berritzailea

Aita Estanisek arkitektura ikasketak nahi zituen bere seme Inazioentzat, Inazio txikitatik nabarmendu egiten baitzen eskolan, marrazten eta gauza berriak asmatzen sekulako gaitasuna erakusten zuelako.

Baina semeak ez zuen unibertsitaterako bidea hartu nahi izan. Bere kasa ikasi nahi izan zuen, modu praktikoan, liburuetan bere galderentzako erantzunak bilatu eta ikasitako bere eskuekin praktikan jarri eta lan eginez. Itsas mekanika-ko tailer batean jardun zen lanean, eta soldaduska aire-base

batean egin zuen, hegazkinen mekanika ikasteko.

Tailerrean eta soldaduskan pilatutako ezagutza eta eskarmentua zituela, 31 urterekin, onartu egin zuen bere aita Estanisek jarritako erronka: berak diseinatu eta eraikiko zuen haien ametsetako arrainontzi berria, aita eta anaiarekin batera. Inazioek bere tailerrean egin zituen Maria Auxiliadora izango zen ontzi berriaren planoak.

Enpresa handia eta zaila zen aurrean zeukatena. Askok abenturatzat jo zuten eginkizuna. Zorionez, hainbat familia eta lagun batu ziren proiektura, elkarlanean.

Ontzia Orioko zubiaren ondoan zegoen zelai huts batean egin zuten –oraingo tren geltokiko errotondaren ondoan, Salatxo tabernaren aurrez aurre-. Garai batean, XVII mendera arte, badirudi hantxe egon zirela kokatuta bi ontziola: Arratola eta Arrazubiko Portu Ondo; eta XX. mendearen hasieran, berriz, 'Astilleros del Oria' izenekoa.

Maria Auxiliadora arrainontziaren historia -1960-61- Garai hartan -1960-, arrantzaleek neguan lehorrean arotzlanak eta mantenu-lanak egiten zituzten. Horregatik, Maria Auxiliadora egiten hasteko, sarasuatarrak zain egon ziren



Eugenio Arbilla maisua, bere ikasleei azalpenak ematen. FOTO RAMIRO



Mario Atorrasagastiren ezkontza. Atzean, Maria Auxiliadora baporea.

“Ontzia erraz pasatu zen zubi azpitik”

“Apaizak bedeinkatuta, itsaso buelta egin zuten herritarrekin”

“Arrantza jaitsi zenean, Afrikara jo zuten”

arrantzaleek udako kostera bukatu arte. Inazio Sarasuarekin batera, Jose Joakin Amilibia aritu zen lanen maisu, eta Francisco Lasa ingeniaria, lanak gainbegiratzen.

Era berean, aipatzekoak dira arotz hauek: Bernardo Idarreta *Ubegun*, Jose eta Donato Iburguren *Errota* anaiak, Jeronimo Sarasola *Makatza txiki*, Antonio Makazaga *Txabola*, Jose Maria *Erretzabal/Frailia*, eta baporeko gazteenak: Martxiel Urkizu *Ollua*, eta Inazio Sarasua.

Aurretik, udan, planoak eta ontzirako piezak prestatu zituzten, oraingo Sarasua erretegiaren azpiko tailerrean. Eguerraren bila ere ibili ziren, Aiako Laurgainetik ekarri zuten eta Baztanetik.

Maria Auxiliadorak 27,50 metroko eslora zuen, 2.500 miliako autonomia, eta 10 korapiloko abiadura hartzen zuen. Garai hartarako, oso ontzi berritzailea izan zen, iraultzailea gauza askotan.

Ontzia eraiki, uretaratu eta zubi azpitik pasatu

Ontzia egin zuten bitartean, jende asko bertaratzen zen ontziolara, lanak ikustera. Moilan eta tabernetan ia beste gairik ez zen. Zurrumurru asko ibili zen, espiak ere bai, ilargi beteko gauetan ontzia ikuskatzen. Ontzia eraikitzeko teknikak eta materialak harrigarriak ziren orduko adituentzat. Zer esanik ez, ontzia uretaratzeko eta zubi azpitik pasatzeko erabilitako moduak.

1961eko apirilaren 28an egin zen botadura, 16:30 aldean, arratsaldeko itsasgoran. Handik aurrera, apustuak hasi ziren herrian ea ontzi berriak lortuko zuen edo ez zubi azpitik pasatzea. Handik egun batzuetara, marea biziko egun bateko itsasbeheran, Maria Auxiliadora erraz pasatu zen zubi azpiko ezker aldeko bigarren zulotik, modu burutsua erabilita.

Zakuak lurrez bete eta haiekin ontziaren atze alde zamatu zuten, txopa jaisteko. Ontzia ibai gora begira jarri zuten, Aginaga aldera. Atzeraka bultzatu zuten. Lehenengo, txopak gainditu zuen zubia.

Ondoren, zakuak brankara eramanda, brankak ere gainditu zuen zubia. Ontziak ez zuen ukitu ez zubia ez hondoa. Errio ertzetan zegoen jendetzak sekulako txalo zaparrada jo zuen.

Moilan lotu zuten, zubi ondoan, Hendaia etxearen aurrean, materialak eta lanabesak sartu eta motorretako lanak egiteko: tankeak, puentea, makilak, aparailuak, elektrizitatea... Uda bukaera zen lanak bukatu eta ontzia itsasoratzeko moduan jarri zutenerako.

Lontzo gaztea hil zen, lan-istripuan

Ontziaren muntaia prozesuan, lan-istripu latza gertatu zen 1961eko ekainaren 7an. Langile bat hil zen elektrokutatuta, 14 urteko Lorentzo Portullarrume Azkue *Lontzo* gazte oriotarra. Albiste tristea berehala zabaldu zen herrian. Ezbeharrak handitu egin zituen ontziaren eraikuntzaz zenbaiten aldetik zebiltzan esamesa gaiztoak.

Istripuak istripu, lanean segitu eta lanak bukatu zituzten. Tradizioak agintzen zuenez, ontzia bedeinkatu egin behar zen. Iraileko igande arratsaldea zen; Victorio Untzetabarre-



Pello Ikazeta, Gregorio Ostolaza, Jose Mari Arruti, Jose Antonio Arrillaga, eta Juanito eta Lontxo Portularrume anaiak, 1960an.

netxea bikarioak bedeinkatu zuen, plaza aurrean. Ondoren, ohiturak agintzen zuenez, itsaso buelta egin zuten ontzian nahi izan zuten herritarrek. Etxerakoan, Oribarzar parean, ontziak hondoa ukitu zuen, eta eskoilerako arroketa lerratu, guardia zibilen kaseta ingurura. Estanisek lemarekin maniobra bikaina egin eta ontzia justu-justu libratu zen arrokak ukitu gabe. Batzuek susto handi samarra hartu zuten, beste batzuek pentsatu zuten patroia txantxa bat izan zela.

Maria Auxiliadora Kantauri aldean ibili zen batez ere, baina arrantza jaitsi zenean urrutira jo zuen: Algeciras, Kanariar irlak eta Afrikara: Dakar eta Sierra Leonara. Espezie askotako arrainak harrapatu zituen: bonitoa, atuna, zimarroia, zerrotea, antxoa, sardina, txitxarroa... eta modu askotan: xaxian -kazea-, kanabera, sarea, txopako arrastea... Barku azkarrazen, Bermeon *Maria Voladora* deitzen zioten.



1961eko irailean baporea bedeinkatu eta herritarrek itsaso bira bat egin zuten Getariaraino. Argazkian, Iturain eta Azpiroz familiakoak.

Hauek dira Maria Auxiliadorako lehen eskifaia osatu zuten 17 gizonak:

- Armadore eta arrantzako patroia, Estanis Sarasua I.
- Armadore eta motorista, Ignacio Sarasua II.
- Armadore eta bigarren patroia, Francisco Sarasua III.
- Bigarren motorista/engrasadore, Ignacio Sarasua IV.
- Sota/patroia, Juan Iburguren.
- Sukaldari, Donato Iburguren
- Lehen mailako marinela, Juan Larrañaga *Xarpas* -Dakarreko kanpainetako beteranoa-.
- Marinelak: Guillermo Iradi, Daniel Astiazaran, Lorenzo Manterola, Marcial Urkizu, Emilio Herrero, Martin Aizpuru, Evaristo Lertxundi eta Andres Iruretagoiena.
- Txotxoak: Patxi Agirresarobe *Gaztaña* 14 urtekoa eta Jose Mari Arruti *Aldape* 13koa.

I was an Eli



Eli Huegun

Gizarte komenientzietara egokitzen ez diren haurrei horrelako mugak jartzea zeharo beldurgarria iruditzen zait, askatasunean beharrean errepresioan hezten ditugulako.

trebentzia izan daiteke, baina aurreko zenbakiko Xabier Etxeberriaren testuari segida emango diot nire perspektibatik, umetan *It's a Malen* oihukatzen zuen gizartean bizitzea gustatuko zitzaiokeen norbait naizelako. Nire bizitzako pasarte asko etorri zitzaizkidan burura artikulua irakurtzen nuen bitartean.

Zu bezalako neska batek ez luke esku pilotan aritu beharko. Txandalaz harago ere bada bizia. Ze opari nahi duzu? Hori ez da neska fin baten jantzia.

Gizarte komenientzietara egokitzen ez diren haurrei horrelako mugak jartzea zeharo beldurgarria iruditzen zait, askatasunean beharrean errepresioan hezten ditugulako gure txikiak. Genero roler mutilenak direla ezartzen duten gauzak gustatzen zitzaizkidalako –eta zaizkidalako–, pun! Mari-matxoia ni beti. Hain zaila al da dikotomia hori errealitatea beharrean fikzio inposatua dela ikustea?

Gogoan ditut 11 urterekin erosi nituen kirol oinetako batzuk, beltzak eta berdeak, zoragarriak nire ustetan. Jendeari ez zitzaizkion gustatu, baldarregiak omen. Bazkalosteko atsedena futboleko jo eta ke pasatzeak oinetakoak azkar puskatzea zekarren, eta hilabete gutxira berriak erostera

joan ginen. Bizi nintzen gizarte harekin bat etortzeko, zuriak erosi nituen, zuri bezain aspergarriak. Eskolarteko esku pilotako finalera iritsi ginenean, zuriz jantzi behar genuela eta, jantzi nituen konbentzimenduz lehen eta azken aldiz. Eskerrak azkar puskatu ziren.

Unibertsitateko ikastetxe nagusian antolatutako futbol partida bat ere gogora etorri zait. Ni atean, non bestela. Hala-kote batean, hor dator baloia eskuin zutabearen ondotik sarrera, zuzenean barrura. Nire artean, *aterako al dut besoa?* oraindik ia ezagutzen ez dudan jendearen aurrean sinifikatuzeko beldurrez. Ezin diot gremioari hutsik egin, beraz eskua luzatu eta baloia kornerrera doa. Zelaian taldekideen besarkada, gauean jangelara sartzean han daudenen obazioa. Eskerrak ematen ditut baina nire baitan haserre nago, baloia-aren bila joan ala ez erabakitzen ari nintzenean ekidin nahi nuen hori gertatzen ari delako. Txaloen zergatiak nazka ematen dit, neska batek baloia gelditzea balentria dela esaten ari baitzaizkit inplizituki.

Adibide gutxi batzuk baino ez ditut jarri, baina esateko gogoia nuen. Ni Eli nintzen bezala, antzeko pasarteetan protagonistak diren milaka haur daude. Ea *it's a Malen* gehiago erantzuten ditugun.



INDO
Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Ubegun industriagunea, 4
Tel. 943 894 024
Fax. 943 130 144
20809 AIA - ORIO





sinergia FISIOTERAPIA
IKERKETA

IBAI ONDO 1, BEHE-OINA WWW.SINERGIA-WEB.COM
TF.: 943 130 577 685 718 595

LESIOAK: BIHURDURAK, TENDINITISAK, ZAITIRATUAK, KONTRAKTURAK, HANKA HANDITUAK, ARTROSIA, ALTERAZIO POSTURALAK, BIZKAR HEZURREKO ARAZOAK, ARNAS GAIXOTASUNAK HAUR ETA HELDUETAN, LESIO NEUROLOGIKOAK, HAURDUNALDIRAKO TRATAMENDU BEREZIAK, ERDITZE ONDORENGO ERREKUPERAZIOA

TRATAMENDUAK: TERAPIA MANUALA, OSTEOPATIA, RPG, MASAJEAK, DRAINATZE LINFATIKOAK, ARNAS FISIOTERAPIA, KINESOTAPING-A, PILATES, ABDOMINALETAKO GIMNASIA HIPOPRESIBOA (GAH)



Orio Hertz Klinikak **ORTODONTZIA** zerbitzu berria jartu du martxan. Prebentzioa ezinbestekoa dela jakinda, hartu aurre erorkizunean sor ditzakeen arazoak.

Arrantzale kalea, 63 beheak
20810 ORIO
Tel.: 943 83 36 45



Maidar Arrillaga Sarasola · 138. Kol. zenb.
Arrantzale 63 · 20810 · Orio · Gipuzkoa
Tel. 943 575 361

oinarri
PODOLOGIA ZENTROA

OREKA FISIOTERAPIA

Tendinitisak
Lumbalgia
Artrosia
Zefaleak
Masaje terapeutikoa,
bentsoak, akupuntura,
eskuzko terapia,
osteopatia

943 13 35 37
Arrizaga kalea, 11 beheak

Joana Murgiondo
Aseguru-agenzia



Abeslari, 4- 2. esk.
Tfnoa: 943 13 46 07

obrak proiektuak errehabilitazioak txostenak eraikuntza zerbitzuak ITEak eraikinen mantenua

XS arkitektura

borja agiresarobe lopetegi
herriko-barr 6. beheak
20800 zarautz

6 3 5 7 3 1 7 2 2
9 4 3 1 3 4 3 5 8
xs@xsarkitektura.com

Galerna
JATETXEA

Antillako Hondartza 5
20810-Orio-Tel.:943 89 04 16

arkaitz taberna
orio

- Ogitartekoak - Pintxoak
- Plater konbinatuak
- Karta

Terraza ederrarekin
Giro ezin hobea

abeslari kalea 6 - 943 831 657

PERTSIANAK
AKO MAZ

Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...

Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

Portu
ERREBEGIA

Santio Ereka Atzua, 216
943 89 44 04
20809 AIA-ORIO

braxtoak baxentoak aldetan
Arriko erabak ezinbestekoa

Venezuelatik zetorren lehengusu argazkilaria

Pilar Katxiñak kontatu digu Joxe Mari Etxezarretaren historia ederra. Caracasetik Agerreko lehengusuei bidalitako familia argazkia da goikoa. Argazkiaren atzealdean eskuz idatzia dago: *Agerreko familiari 1955. urteko ekainaren 13an*. Argazkiko gizon dotorea da Joxe Mari. Ondoan ditu Joanita emaztea, Jaione alaba eta Iñaki semea. Donostian hazi zen gizona, baina aita oriotarra zuen, Agerre baserrikoa.

Ofizios kazetaria zen, ez dugu dokumentatzerik izan zein egunkaritan lan egin zuen. Alaba Jaionek bederatzi urte zituen Gerra Zibila hasi zenean. Familiak erbesterratu beharra izan zuen. Katxiñan kontaktzen dutenez Telesforo Monzonek prestatu zituen kanpin dendatan egon ziren denbora batean. Ondoren Venezuela joan ziren laurak. Kazetari lanetan jarraitu zuen Etxezarretak. Horrez gain, Bidasoa ostatua kudeatu zuen argazkiko familiak.

Efemeride batek eman digu argazkia berreskuratzeko aitzakia. Izan ere, Caracaseko Euskal Etxearen sorreran tartean zen Etxezarreta. Urte batzuk geroago, Jose Antonio Agirre lehen Lehendakariak bisitatu zuen Caracaseko Euskal Etxea, lehen Eusko Jaurlaritza sortu berrian herrialdez herrialde ibili zenean. Aurten jai eguna izan dugu urriaren zazpia, Eusko Jaurlaritza sortu zela 80 urte bete direnean. Itxuraz, Joxe Mari harremana izan zuen Jose Maria Agirre lehendakariarekin eta Telesforo Monzonekin. Caracaseko Euskal Etxearen presidente izan zen gizona bi alditan.

Katxiñan lehengusuaoren oroitzapen oso ona dute. Pilarrek Joxe Mari gizon jatorra zela gogoratzen du. Erbeste aldiaren lehen urtetan ez zuen etortzerik izan, baina gerora sarri etortzen zen, bi urtez behin gehienetan. Agerre baserriko izebarrari hamaika igurtzi emandakoa omen zen. Venezuelatik lehengusua etortzen zenean ospakizuna izaten zen Agerren. Amonak mahai luze-luzea jartzen zuen base-ri atarian eta bertan egiten zituzten otorduak. Agerreko argazki zaharrenak Jose Mari lehengusua ateratakoak dira, oporraldietan ateratakoak. Orduan ez zen jatorriarekin Agerren, ezta argazki kamerarik ere.

Jose Luisen ilusioa seme-alabak euskaldunekin ezkontzea omen zen. Erdizka lortu zuen bere nahia: alaba Jaione Atxurra abizeneko bizkaitarrarekin ezkondu zen, Iñaki semeak Venezuelako alaba hartu zuen emazte. Aita sasoiko hil zen. Pilarrek kontatu digunez hiltzorian zela Euskal Herriko mendien, artzainen eta artaldearen irudiak ikusten omen zituen begiak ixterakoan. Orioko lehengusuek ere oroitzapen ederrak dituzte.

JON AGIRRESAROBÉ

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri Karkarara eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

“Bizkarrezurraren errebisioa erregulartasunez egin beharko genuke”

Xabier Mendaraz
Kiropraktikoa

Amazonasen eta Kalkutan aritu da Xabier Mendaraz kiropaktikoa. Bizkarrezurra zaintzearen garrantziaz hitzaldia emango du Orion azaroaren 29an.



X. MENDARAZ

MIRIAM GARCIA ETXEBERRIA

Donostiarra da izatez, baina Orion bizi da Xabier Mendaraz kiropaktikoa. Kontsultan egiten du lan ia urte osoan, baina udako oporretan ez dio lan egiteari uzten. Amazonasen eta Indian izan da azken urteetan kiropaktika egiten, baliabiderik ez dutenei laguntzen.

Zer da kiropaktika? Eta zergatik da garrantzitsua?

Nerbio sistemaren bitartez osasuna lantzen duen lanbide sanitarioa da kiropaktika. Sistema zentrala babesten duen estrukturarekin egiten dugu lan, hau da, bizkarrezurrarekin.

Nerbio sistemak gorputzeko funtzio guztiak erregulatzen ditu eta burmuineko informazioa gorputz osoan zabaltzen du. Sistemaren interferentziak sortzen badira, gaixotasunak agertzen dira, eta ez bakarrik bizkarrezurrekoak. Kiropaktikak, doiketarekin, interferentzia horiek kentzen ditu.

Hemen ez dago ia ohiturarik bizkarrezurra zaintzeko. Hortzen edo bistaren azterketa egiten dugun bezala, bizkarrezurra ere erregulartasunez begiratu beharko genukeela uste dut.

Osasuna lantzeko modu naturala da, botikarik gabea.

Kiropaktikaren oinarria hau da: modu egokian funtzionatzen duen gorputzak bakarrik sendatzeko gaitasuna dauka. Gure lana, bizkarrezurrak nerbio sistemaren eragin ditzakeen interferentziak kentzea da, gorputzak ondo funtzionatzeko.

Zein zailtasun ditu legalki zure lanbideak?

OMEk osasun-lanbide gisa onartzen du eta European erregu-

latuta dago lanbidea, Espainian, Grezian eta Irlandan izan ezik. Hori arazo handia da guretzat eta aldatzeko lanean gabiltza Espainiako Kiropaktikoen Elkartearen.

Atzerrian izan zara kiropaktika egiten eta jendearekin laguntzen. Nolako esperientzia izan da?

Kiropaktika ikasketak amaitu genituenean gobernu kanpoko erakunde baten bidez norabait joan behar genuela erabaki genuen hainbat ikaskidek. Brasilen izan ginen, Amazonasen. Esperientzia hura errepikatzeke gogoz geratu nintzen eta hurrengo urtean Indiara joan nintzen, Kalkutara. Pasa den udan bigarrenez izan nintzen han.

Kalkutako auzo pobreenetako batean izan ginen bikotekidea eta ni, erizaina da bera. Nik bizkarrezurrarekin laguntzen nuen eta berak zauriak sendatuz.

Izugarrria da esperientzia, baina gogorra ere bai. Han tratatu nuen jende asko ez zen inoiz medikuarengana joan eta egoera oso txarrak ikusten ziren. Horiei laguntzea eta urtebete beranduago izan duten aldaketa ikustea izugarria da.

Hitzaldia emango duzu datorren astean Orion.

Azaroaren 29an emango dut hitzaldia, 19:00etan Salatxo Aretoan. Osasuna zer den azalduko dut ikuspuntu natural batetik, eta nola hobetu dezakegun. Bizkarrezurrak gure osasunean izan dezakeen eragina eta kiropaktikak nola lagundu gaitzakeen azalduko dut. Jendearen zalantzak argitzen saiatuko naiz, kiropaktikara gertura daitezen.



Oroimenaren kutxa

Irudia Antonio Valverde Ayalderena da, Antton Valverderen aitarena.

Donostiako Antzoki Zaharreko jaialdia oriotarren alde

Aurtengo traineru denboraldia, ohi ez bezala, nahiko lasai joan da, ika-mika handirik gabe. Baina uda bukaeran, saltsa handi samarra sortu da berriz ere, 1939ko ditxosozko banderarekin. Donostia aldeko sasijakintsuren batek dioenez, oriotarrek urte hartan irabazitako bandera kendu egin behar omen da palmaresetik.

Gauzak ez dira beti horrela etorri Donostia aldetik. 1951ko denboraldiaren bukaeran Gipuzkoako Diputazioak omenaldi handi bat egin zien Orioko arraunlariei. Honela zioen Donostiako orduko egunkari batek, besteak beste: *Gutxitan izan da horren merezia omenaldi bat; mende erdi bat arraunean lehen bandera eskuratu zutenetik, estropadak irabazten, erraz esaten da! Oriotarren fama Galizia eta Andaluziaraino iristen da. Gipuzkoa osoak sentitzen ditu bereak oriotarren garaipenak* –euskaratuta–.

Bost urte lehenago ere, 1946an, omenaldi handia egin zitzaizen Donostian oriotarrei, Pedreñari Gipuzkoako ordezkari moduan irabazitako estropadagatik. Baina estropadaren aurretik ere jaialdi bat antolatu zuten oriotarren alde, Antzoki Zaharrean.

Oso jaialdi bitxia izan zen hura, berezia. Egun hartako programa eman zidan eskura Luis Azurmendi Galdagorri 2013ko martxoaren 2an Arraunetxan, arraun zentro hura inauguratu zen egunean. Hauxe da jaialdiaren programa hitzez hitz, eta idatzita zegoen moduan:

Teatro principal

Viernes 14 de julio de 1946, a las 7 de la tarde.

Festival artístico: Organizado pro-tripulación Oriotarra representante de Guipúzcoa en el próximo Campeonato Nacional de Traineras

Programa

- Primeraparte

- 1 Chistularis de Orio
- 2 Danzas vascas, por el Grupo de dantzaris de Orio
- 3 Izazu nitzas cupira, canción vasca de M. Cendoya, por la Sta. Iturrizaga
- 4 Arreglo vasco, –bailable–, por José Maria Usandizaga y María Dolores Molano
- 5 Don Tancredo y sus muñecos
- 6 Don Gil de Alcalá, habanera, de Penella, por las Stas Lanchares e Iturrizaga
- 7 Triki trixa, por el Grupo de dantzaris de Orio

- Intermedio

- Segunda parte

- 1 Salutación, por Basarri
- 2 Sagar dantza, por el Grupo de Stas de la Schola Cantorum de Ntra. Sra. del Coro
- 3 Marina (Pensar en él), de Arrieta, por la Sta. María Teresa Lanchares
- 4 Acordeonista, Pepe Andoain
- 5 Iri dantza, por el grupo de dantzaris de Orio
- 6 Bertsolaris, Basarri y Uztapide
- 7 Aurtxoa ceaskan, –canción de cuna– de Gabriel Olaizola y Erico festa, canción humorística, de Zubizarreta, por el Coro Maitea, dirigido por su profesora María Teresa Hernández

Precios

- Butaca

Diez pesetas

- Galería

Cuatro peseta

Arren, ez dadila azken izan!

Xaltxa badago

Jaialdi feminista, Orioko Xaltxerak antolatutako festa: sexualitate tailerra, Bertsxortan, La Furia, Vinagre de Moderna, Koxka eta Dr. Myrna.



Xaltxa Badago jaialdi feministako kontzertuko irudi bat, Furia. KARKARA

Azaroaren 12an izan zen Orioko Xaltxerak antolatutako festival feministaren estreinua; eta, gaur egungo errealitatea ikusita, plazer hutsa izan zen hara joatea eta ekitaldiekin disfrutatzea.

Arratsaldean hasi zen eguna, kontzertuez aparte herritar guztiei zabalduetako ekintza batekin. Aukera izugarria aprobetxatu eta Eider Goiburu dinamizatzailea izan zen *Sexualitateak, ereduak, desioak...* tailerrean izan nintzen. Horrelako gaiekin gertatu ohi den bezala, ez zen jende asko hurbildu, baina giro *goxoa* eta konfiantzazkoa sortu zen, bertaratutakoen eskerrak jasoaz. Hau bukatu eta *Bertsxortan* izeneko antzerkia hasi zen. Izugarria 3 neska gazte hauek egiten dutena, gai konplexua oinarritzat hartu eta etxeko sofán ariko balira bezala, lasaitasun horrekin antzeztu zuten eta, noski, ikusten ari ginenok barre algaraka egotea ere lortu zuten. Azkenik, gauak horrela eskatuta, emakumeak oholta gainera igo ziren, errebindikazio berbera egiteko hainbat estilotako musika entzun genuen. Giro polita eta goxoa sortu zen. Emakumeak gehienak. Aurtengoa lehenengoa izan da, baina ez dadila azkena izan, faborez.

Badaudelako munduarentzat musika egiten duten emakumeak ere. Non dauden? Jakin ez zenutenontzat lehengo astean Etxeluze Gaztetxean izan ziren. Lasai, hurrengo urtean beste aukera bat izango duzue eta. Zorionak Xaltxerak! Txapela kentzeko modukoa!

LUKENE LIZASO

ZINKU
Igeltseritza orokorra
Etxeko errealitatea mola guztiak
lortzeko, bainu gelak, igeltozak...

Ander Zinkunegui
667 740 279


Zaragueta
Herri Eskola *oriko*

telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezkuntza.net


ELEKTRIZITATEA
Ander Ezpeleta
943 831 774
600 856 728
anderexpoelektrozitatea@gmail.com


Gabon
TABERNA

- ✓ Pintxoak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Ogitaratekoak

943 83 06 09

MENDIZABAL
ARROZTEGIA
Nabarriko arrainak
eta egularrak

943 831 175 Altxami bidea
645 708 491 Berr-Aloj etxea
mend@arroztegia.net 20610 Aio-Orio


ASADOR
XIXARIO

Euzko Gasteizko Kalra, 2
Tel. 943 800 019 - 0180

KAFETEGI - OKINDEGI - GOZOTEGIA **GELATTO**



lzozki naturalak - Opilak

943 578 176
Herriko enparantzan

ORIOKO HERRI IKASTOLA



Hizkuntza ohituren transmisioa arriskuan

Zigor Saizar

Ikastolako zuzendaria

**NAROA ARRIARAN, MIREN GENOVA
ETA NAROA LARRETA. DBH2**

Azken berrietan agertu denez, hizkuntza ohituren transmisioan hutsunea ari da nagusitzen eta, horregatik, egoera aztertu dugu Zigor Saizarrekin.

Zer da hizkuntza eta ohituren transmisioa?

Pertsona batek umezaroan edozein hizkuntza eta kultura –ohiturak– gurasoengandik eta hurbilekoenetatik jasotzen ditu. Hizkuntza gutxituak ez direnetan, gizartean ere egitea ahalbidetzen du.

Gutxituetan, ordea, transmisioa guraso eta hurbilekoenetara mugatzen da eta horregatik berebiziko garrantzia du familiaren baitako transmisioa zaintzeak, hezkuntza eragileenarekin batera.

Komunikabideetan, hizkuntza transmisioa segurua dela baieztatzen dute, baina hizkuntza ohiturena kolokan dagoela; egoera berdinean al gaude Ikastolan?

Ez nuke esango gure ikastolan ohituren transmisioa kolokan dagoenik, izan ere, ikastolak bere Hezkuntza Proiektuan jasota dauka helburu gisa transmisio hori.

Zergatik gurasoek beren artean gai be-

reziez hitz egitean gaztelania erabiltzen dute?

Ez da erreza horren arrazoia bilatzea; agian beraien artean espainolez egitea *cool* edo modernoagoa dela iruditzen zaie, ez dakit...

Zer egin daiteke gurasoek haien seme-alabek euskararen erabileraz ohartarazteko?

Lehenik eta behin kontzientzia hartu beharko lukete ea zergatik hitz egiten duten beren artean espainolez, gogoeta horretan kontuan hartu beharko lukete, seme-alabek gurasoak eredutzat dituztela eta horrenbestez, beren artean euskaraz ez badute egiten, haiek ere gerora euskara ez erabiltzeko arriskua dutela.

Ohituren transmisioari buruzko datuak hobetzeko gurasoen aldetik inizatibarik ikusten al da?

Lehen esan bezala, ohituren transmisioa galtzen ari garena ez dira konturatu oraindik gurasoak, ondorioz nekez izango dute inizatibarik transmisioa hobetzeko. Kontzientzia hartu behar da lehenik.



Ixiar Mendizabal

Euskararen galbidea

A skotan esaten da gazteok *euskañolez* hitz eginda euskara galbidera eramango dugula, baina helduak zuzenean gaztelaraz hitz egiten entzuten ditugu askotan.

Orioko Herri Ikastolako *Hizpro* taldea gai hau aztertzen ibili da, eta emaitzak garbiak dira: anai-arreben artean ia beti –kasuen %80 ean emaitza baxuenean– euskaraz hitz egiten da, eta lagun-arreben ere euskaraz mintzatzen gara: beste ikasleekin euskaraz hitz egiten dutenen kopurua askoz ere handiagoa da gaztelaniaz hitz egiten dutenena baino. Eta ez da soilik Orio mailan, Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleen %40a baino gehiago ere euskaraz mintzatzen baita kalean.

Helduen artean berriz, gaztekeraz gehiago mintzatzen dira euskaraz baino, eta euskara gehiago erabiltzen duten kasuetan ere bi hizkuntzak nahiko parekatuta ageri dira.

Dena kontuan hartuta, guri txikitatik erakutsi diguten hizkuntza hau erabiltzen berriz erakutsi beharko diegu helduei. Izan ere, zer da bestela hizkuntza bat mintzatzen ez bada?

Guri txikitatik erakutsi diguten hizkuntza hau erabiltzen berriz erakutsi beharko diegu helduei.

Krisialdiaren ondorioei aurre egiteko erronkak



Bigarren eskuko azoka herriko plazan. KARKARA

Krisiak pertsonalak, politikoak, ingurumenekoak edo ekonomikoak izan daitezke. Azken horretan egingo dugu azpimarra hil honetako Udalaren Txokoan, azken urteetan horrek hartu baitu presentziarik handiena gizartean.

2008an iritsi zen krisia Euskal Herri-
ra. Energia-baliabideen kontsumo neurrigabeak, prezioen gorakadak, kredituak mugarik gabe ematea, bankuen zorpetzea, enpresen beheraka nabaria, langabeziaren eta pobrezia-
ren gorakada... Horiek eta antzerako beste hainbat gai hartu dituzte geroztik egunkari askoren lerroburuak.

Hazkundera al gaude?

Azkenaldian politikariak eta komunikabideak hazkunde ekonomikora itzultzen ari garela iragartzen ari zaizkigu, baina, oraingoan, fokua ekonomia-
ren susperraldian jarri beharrean,

ondorioei aurre egiteko erronketan jarri nahi izan dute.

Behar sozialei buruzko inkesta

Krisiak aurrekontuetan izan du isla, baina baita gizartean ere. Horren inguruko hainbat datu ematen ditu Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistikarako Organo Bereziak 2014an Euskal Autonomia Erkidegoko behar sozialei buruz egindako inkestak.

Lan horren arabera, ongizate-gabezia izateko arrisku-egoerak gehitu egin dira, familia askotan diru-sarrerak eten egin direlako. Diru sarre-
rari-
gabe gas-
tuei aurre egiteko zailtasunak areagotu egin dira. Zailtasun hori adierazten duen datu simple bat: 2014an pobrezia-arriskuan egon zen biztanleen %72,9ak jaso zuen EAeko diru sarre-
raker bermatzeko laguntza.

Baina, laguntza horien ondorioz,

2014an 80.499 pertsona pobreziatik ir-
ten zirela dio txostenak, EAeko biztan-
leen %3,7a eta arriskuan dauden %38,7a. Baina, laguntzak eskuratu arren, badira pobrezian jarraitzen du-
tenak. 71.092 pertsona, hain zuzen, EA-
Eko biztanleriaren %3,3a

Dena den, txostenak dioenez, pobrezia-
n dauden horiek oinarritzko behar-
raker beteta edukitzera hurbiltzen dira. 2014an aztertutako pertsonen %65,1ak, ustez, gutxienekoari aurre egiteko adina sarrera dituzte. Baina, hala ere, epe luze-
rako bizi-baldintzei lotutako pobrezia eta prekarietate kasuak ez dira gutxi. Banaketa gero eta handiagoa dago: pobreak gero eta po-
breagoak dira; aberatsak, berriz, gero eta aberatsagoak.

Krisiari aurre egiteko gako-
en inguruan eman dute iritzia ale honetan udal taldeek.



Arrisku egoerei aurrea hartu nahian

Ekonomiaren hobekuntzaren argi izpi batzuk sumatzen hasi garela badirudi ere, Orioko EAJri biziki kezkatzen dio hobekuntza honek okerren pasatzen ari diren familiengan izaten ari den eragin negatiboa. 2012tik 2014ra pobrezia eta gizarte bazterkeriaren inkestak arabera, gipuzkoar gizartearen polarizazioa ekarri du, gehien daukatenen eta gutxien daukatenen arteko desberdintasuna handituz.

Orain arte, gizarte bazterkeriari enpleguaren bitartez egiten ziztaion aurre. Gaur egun aldiz, enpleguak ez du pobrezia arriskua ekiditen. Pobreziaren pobretze eta kronifikazioaren fenomeno honen aurrean, udaletik burutzen diren ekintza eta programak, egungo errealitate egokitu beharra izango da. Horregatik, errealitate horren ezagutza sakona ezinbestekoa izango dugu. Ezagutza honetan oinarrituz, beste erakundeekin elkarlanean, oriotarrak duintasunez bizitzeko ekimenak diseinatu nahi ditugu.



Orain

Ohiko krisialdi ekonomikoan al gaude?

Crisis? What crisis? -1975- da Supertramp musika taldeko disko ezagunetakoena. Garai haietan ere krisiak zeuden, baloreak eta arazo ekonomikoak tenkan eta tinka larrian. Aipatu izan da krisi ekonomikoek ziklikoak direla eta baita gerrak piztu eta mantendu izan direla ekonomiari susperraldiak emateko. Izan diren krisi ekonomikoak, beste esparru batzuetan -sistema, baloreak, etab.- nahiko sendo egoteagatik, aurrez ikusi zitekeen irteera izan dute.

Ekonomia suspertuz, lana sortuz eta aberastasuna egoki banatuz konpondu daitezke ondorio ekonomikoak. Horrek produkzio prozesutik kanpo daudenei -langabetuak, jubilatuak, etab.- estaldura egokia arautzea dakar, erakunde publikoen koordinazio eraginkorrek.

Baina gaur egungo krisialdia ez dugu uste arrunt horietakoa denik.



EH Bildu

Herritarron eskubide sozialak bermatu

Krisi ekonomikoaren oinarrian finantza alorrean egin diren gehiegikeriak daude. Azken urteetako eraikuntza espekulazioak, gure industriaren ekoizpen sareen berezitasunak eta lan merkatuaren ezaugarriek gure herrian krisiaren azterna sakona utzi dute. Krisiak kohesio soziala kolokan jarri eta gizarteko talde ahulenei eragiten die, pobrezia eta bazterketa soziala ekarri: hilabete amaierara heltzeko eta energia fakturak ordaintzeko zailtasunak, langabeziaren gorakada, prekarietatea, gazteak lan bila kanpora joan behar izatea, etxegabetzeak... Inpaktu zuzena du bizi-baldintzetan, bereziki babes sozialetik kanpo geratzen diren pertsonentzat. Instituzioetatik ekonomia herritarren beharretara jarri behar dugu eta ez kapitalaren metaketaren esanetan. Gizarte zerbitzuak larrialdi kasuetan eraginkor lan egiteko prestatu behar dira, baina epe luzera norbanakoaren autonomia garatu eta herritarron eskubide sozialak defendatuko dituen politikak behar ditugu.



PSE-EE

Doiketa

Krisialdiaren okerrera dagoeneko pasa dela esaten digute, baina nik ez dut oso argi. Krisiaren ondorioak bistakoak dira: soldatak jaitea, langabezia handitzea, hezkuntza, osasunean eta gizarte laguntza murrizketak. Horrek guztiak herritarrei erosteko ahalmena kendu die eta fakturak ordaintzea edo hozkailua betetzea geroz eta zailagoa egiten zaie. Nola konpondu arazo hori? Enplegu-politika serioak egin behar dira, lan-hitzarmen berriak sinatu, langileek eskubideak galtzen jarrai ez dezaten, eta hezkuntza publikoagatik eta osasunagatik apustu egin behar da. Hori guztia gobernu autonomiko eta zentralaren lana da; guk, udal bezala, ez dugu maniobra aukera handirik. Udalean, ordenantza fiskaletan ezinbestekoak diren igoerak bakarrik aplikatu ditzakegu, progresiboki, herritarrentzat gehiegizkoa izan ez dadin. Sektore kaltetuenei laguntzak ere sor daitezke. Horretarako, udal honek, dagoenerako ematen dituen laguntzak doitzea planteatu beharko luke.

Gizartea

Balea Hotela itxi dute



2014an hasi ziren Aisia enpresan arazoak. Ezin izan die zorrei aurre egin, eta, ondorioz, Aisia establezimenduak itxi egin behar izan dituzte, tartean Orioko Hotel Talasoterapia Balea

Aisia Hoteles kateko katebegi bat gehiago zen atzora arte Orioko Hotel Talasoterapia Balea. Atzo itxi zituen atekak; eta gaur, dagoeneko, ez dute telefonorik hartzen. Jada ez dago itsasertzean hotelik; hondartzaren ondoan talasoterapiarik. Zorrak pilatu ditu Aisia Oriok, eta horiei aurre egin ezin dienez, atekak ixtea erabaki du.

Ez da Aisia hotelik geratzen

Bizkaian sortu ziren lehen talasoterapiak, Derion, Lekeition eta Urduñan. Mugak gainditu eta Kantabrian ere ireki zuten antzeko establezimendu bat geroago. Eta, ondoren, baita Gipuzkoan ere, Deba eta Orion, alegia. Hazkundera 2014an bukatu zen. Hartzekodunen lehiaketa deitu zuten urte horretan, hornitzaileei eta langileei zor ziz-

kieten diru kantitate altuak medio. Pixkanaka-pixkanaka establezimenduak ixten joan ziren. Debakoak ere orain gutxi arte iraun du eta Oriokoak ere azken momentura arte irekita jarraitu du. Baina, lehenengo Debakoa eta gero Oriokoa itxi behar izan dituzte. Gipuzkoan geratzen zen azken Aisia hotela zen Oriokoa. Itxierarekin ez da Aisia kateko hotelik izango Gipuzkoan.

Gizartea

Kameraren aurrean eta kameraz kanpo aritu da lanean Jon Garate

Ikus-entzunezko gradua ikasten ari zela hasi zen telebista saioetara joaten, grabaketetara, telebistan lan nola egiten zuten ezagutzera. Ikusle hutsa izatetik parte hartzera pasa zen Garate. *El Conquistador del Fin del Mundo* saioko eztabaidetan hartu zuen parte eta hainbat filmetan ere ibili da, estra lanetan. Baina, kamera aurrean ez ezik, atzean ere aritu da. *Gailurra* telebista saian lanean aritu da. Euskal Herriko mendiak erakusten zituen Andoni Aizpuru eta Izaro Andak gidatutako saioak. Garatek erredaktore lanak egin ditu programa horretan. Eta, telebistaz gain, Garate irratan ere ibili da. Telebistan aritu aurretik, alegia; Euskadi Irratian aritu zen, Amarauna saioan.





Zientzia

Alemanian ikerlari lanetan dabil Onetsine Arrizabalaga

Azaroaren 8an, Zientziaren eta Bakearen Nazioarteko Astea izan zen. Egun hori aitzakia hartuta Onetsine Arrizabalagarekin hitz egin du KARKARAK. Alemanian dabil ikerlari lanetan 2012a geroztik. Biokimikaria da ikasketaz eta biologia molekularrean espezializatu zen doktorego tesian. Orain enbrioietatik eratorritako ama zelulekin egiten du lan eta irradiazio ionizagarriak haiengan eta euren garapenean duen eragina aztertzen du. Labor esanda, istripu nuklearrek, gure inguruan dauden harriek edo terapia eta diagnosikorako erabiltzen diren gai-luek gure zelulak kaltetu ditzaketen izpiak -irradiazioa- zabaltzen ditzuzte, eta dosiaren arabera, eragin ezberdinak izan ditzakete. Berak hori ikertzen du.

Ekonomia

Bailarako ekonomiaren egoera islatu dute *Ekonomia Gurean* saioan

Ekonomia Gurean teleaioaren atala grabatu zuten azaroaren 8an Aritzabalalde kiroldegiko aretoan, eta 80 lagunek jarraitu zuten zuzenean grabaketa. Tokikomek antolatu zuen saioa, Baleike, Erlo Telebista, KARKARA eta Zarauzko Hitzarekin elkarlanean, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin. Urko Aristi kazetariak gidatuta, gaur egungo egoera ekonomikoaz eta etorkizunaz aritu dira solasean ondorengo gonbidatuak: Orkestra Lehiakortasunerako Euskal Institutuko ikertzaile Miren Estensoro, ieTeam-eko zuzendari orokorra eta Wavegarden-eko promotore Iñigo Ugarte eta Engranajes Juaristi enpresako gerente Anabel Juaristi. Guztien artean, bailarako ekonomiaren argazkia egiten ahalegindu dira.

Kirolak

Kintopeko Idi Proben Txapelketa egin da Aian eta Kamiñok irabazi du

Aurten ere Kintopeko Idi Dema Txapelketa izan da Aian. Saizar sariketarako puntuagarriak ziren probak azaroaren lehen astean jokatu ziren. Aiako Patxi Arzadunek eta Orioko Iñaki Olidenez hartu zuten parte; zazpigarren eta hirugarren egin zuten hurrenez hurren. Txapeliduna Kamiñoko jatetxea izan zen, 58 plaza justu lortuta.

Gizartea

Lapurreta dezente Orion

Azaroaren 6ko gauean lapurrak sartu ziren Orioko Eguneko Zentroan. Sarrera bortxatu eta telebista bat lapurtu zuten. Lehenago ere lapurrak sartu ziren gauez bai Eguneko Zentroko ile-apaindegian eta bai KTA eraikinean -Kosta tailerra izenez ezagutzen dena-. Eguneko Zentroan kalte txikiak eragin zituzten eta kafe-makinako txanpon batzuk lapurtu; baina KTA eraikinean txikizio handia egin zuten, 9 ate bortxatu zituzten-eta. Eramateko moduko ezer ez zuten aurkitu; baina Udalak hiru ate osorik aldatu beharko ditu eta gainontzekoak konpondu.

Hezkuntza

Modu mingarrian esaten ditugunak errespetuz esaten ikasteko ikastaroa

Orioko Haurreskolan *Errespetuzko Komunikazioa*: bizitzarako komunikazioa izeneko ikastaroa emango du Nerea Mendizabalek. Azaroan hasi eta ekaina bitarte izango da, hilero larunbat batean. ZUTANI jolasaren sortzaile eta egilea da Mendizabal: Komunikazio Ez Bortitzaren bizipen-prozesuan oinarritzen da eta gatazken ebazpena erraztuz lotura emozionala lantzea du helburu.



AGENDA

Orio

Kontzertua

■ Abenduaren 2an, Ibai Marinen kontzertua, 22:30ean, kultur etxean.

Emanaldiak

■ Azaroaren 29an, Kiropraktikaren inguruko hitzaldia, Xabier Mendiarazen eskutik, 19:00etan, Salatxo Aretoan.
 ■ Azaroaren 30ean, Joxemari Olasagastiren argazki emanaldia, 19:00etan, Salatxo aretoan.

Gabonak

■ Abenduaren 22an, Gabonetako kontzertua, 20:15ean, elizan.
 ■ Abenduaren 23an, Herribil, 22:00etan, kiroldegian.
 ■ Abenduaren 24ean, Olentzero eta Mari Domingiren etorrera.
 ■ Abenduaren 31n, San Silvestre lasterketa goizean. Lehendabizi haurrak eta ondoren helduak.

AZOKA

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Salgai

■ Aiako aurtengo intxaurrak salgai: 4 kilo, 20 €, taina onekoak, etxera eramanda. Pati deitu: 943 132131 edota 634 424 887

Lan eskaintza

■ Urdaira sagardotegian txotx denboraldirako lanerako jendia behar da. Interesatuak deitu: 943 372691 eta 619403691
 ■ Umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko emakumea behar da. Disponibilitadea behar da. Tf: 677348103

■ Salatxo tabernan zerbitzari baten bila gabilta egunero lan egiteko, esperientzia edukitzea eta euskalduna izatea eskatzen da. Interesatuak telefono honetara deitu: 608774954

Lan eskaera

■ Asteburuetarako lan bila nabilen neska naiz. Helduen zaintzan zein garbiketari lan egin dezaket eta paperak ditut. Tf: 663117579
 ■ Gizonezkoa lan bila. Baserrian eta ganaduekin

Aia

Podologoia

■ Abenduaren 17an, podologoaren kontsulta, sendagilearen etxean. Aurrez ordua hartzeko: 943 13 11 44.

Erakusketak

■ Azarotik urtarrilera, Munduko Ateak erakusketa Alex Marotoren eskutik, Jauregi Tabernan.

Kastingak

■ Azaroak 27, Errementari filmerako kastinga, 11:00etatik 13:30tara, kultur etxean.

Erromeriak

■ Azaroaren 27an, Mirari Azkune, Aintzane Agirrebeña eta Lutxurdio Aiako Aristerrazuko erromerian, 18:30etik 21:30tara.

Gabonak

■ Abenduak 31n, VIV San Silbestre.

esperientzia. Landako lanak egiteko gai. Tf: 674814755 - Jorge Ponce-

Elkarbanatzeko

■ Pisukide bila nabil, bi logelako etxea elkarbanatzeko. 15 metro ditu gelak eta ohe handia. Bi komun eta 50 metroko terraza. Pertsona arduratsua nahi dut. Tf: 652551550.

Alokagai

■ Garajea alokagai Orioko kale nagusian. Interesatuak deitu 691763200 telefonora - Arantxa-

ITSASOA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
01	05:13 eta 17:31	11:20 eta 23:32	
02	05:46 eta 18:05	11:56 eta ____	
03	06:20 eta 18:41	00:07 eta 12:33	
04	06:57 eta 19:22	00:45 eta 13:14	
05	07:40 eta 20:10	01:27 eta 14:01	
06	08:31 eta 21:09	02:16 eta 14:56	
07	09:34 eta 22:19	03:15 eta 16:00	
08	10:47 eta 23:33	04:24 eta 17:10	
09	12:00 eta ____	05:36 eta 18:17	
10	00:41 eta 13:06	06:43 eta 19:17	
11	01:40 eta 14:04	07:43 eta 20:12	
12	02:33 eta 14:58	08:38 eta 21:302	
13	03:23 eta 15:48	09:29 eta 21:51	
14	04:11 eta 16:36	10:18 eta 22:38	
15	04:57 eta 17:23	11:06 eta 23:24	
16	05:44 eta 18:11	11:54 eta ____	
17	06:31 eta 18:59	00:10 eta 12:42	
18	07:19 eta 19:49	00:57 eta 13:32	
19	08:10 eta 20:44	01:47 eta 14:24	
20	09:05 eta 21:44	02:40 eta 15:21	
21	10:08 eta 22:52	03:40 eta 16:23	
22	11:17 eta ____	04:46 eta 17:28	
23	00:00 eta 12:24	05:55 eta 18:31	
24	01:01 eta 13:23	06:57 eta 19:24	
25	01:52 eta 14:11	07:50 eta 20:10	
26	02:35 eta 14:53	08:34 eta 20:51	
27	03:13 eta 15:31	09:14 eta 21:28	
28	03:49 eta 16:07	09:52 eta 22:04	
29	04:23 eta 16:41	10:28 eta 22:40	
30	04:57 eta 17:16	11:04 eta 23:15	
31	05:30 eta 17:51	11:40 eta 23:51	

ZAINTZAKO BOTIKAK

- ABENDUA:
- 1ean, Mutiozabal
 - 2an, Lasa
 - 3an eta 4an, G. Artiñano
 - 5ean, Lasa
 - 6an, Iriarte
 - 7an, Lasa
 - 8an, G. Artiñano
 - 9an, Lasa
 - 10ean, Larrañaga
 - 11n, Etxeberria
 - 13an, Lasa
 - 14an, Larrañaga
 - 15ean eta 16an, Lasa
 - 17an eta 18an, Iturria
 - 19an, Lasa
 - 20an, G. Artiñano
 - 21ean, Etxeberria
 - 22an, Iturria
 - 23an, Zulaika
 - 24an eta 25ean, Izpizua
 - 26an, Iturria
 - 27an, G. Artiñano
 - 28an, Lasa
 - 29an, Zulaika
 - 30ean, Larrañaga
 - 31n, Lasa

- **Azaldegi:** Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz
- **Etxeberria:** Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz
- **Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
- **Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
- **Lasa:** Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio
- **G. Artiñano:** Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
- **Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943 13 29 83 Zarautz
- **Zulaika:** Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 Zarautz



mm **medestec**[®]
 teknologia diatermiko berritzailea

AURPEGIKO TRATAMENDUAK
 Antiaging

ZELULITISA

MUSKULUEN TONIFIKAZIOA

LARRUAZALEKO ILDOEN MURRIZKETA

**konpondu zure arazoa saio gutxitan teknologia berritzaile diatermikoaren bidez*

ROSANA
 -ARGAZKI ESTUDIOA-

fotorosanaarruti@gmail.com
 telf: 943 83 58 45




NIKO NOK
 nikonok.blogspot.com
 telf: 677 525 883

pailazo
 ikusirikazunak

Izazkun Estankoa

Tabakoa
 Prentsa
 Eskola materiala
 Opariak

Abuztuaren 15etik
 8:00-13:30 - 17:00-20:00
 Izazkuntza eta materialak
 8:00 - 13:30

Eusko Gudari, 23

Nahikari
 HAUR DENDIA

ONDO PASA FESTAK !!

Balea, 1
 08220 - Oriu
 Telf: 943 83 34 30
 www.nahikari.es

BPXport
 teknifikazioa

BPXport Teknifikazioa

ehm | gzh | mmp

- Esfortzo froga arrunta (laktato gabe) 80 €
 - Esfortza froga aurreratu (laktato neurketekin) 112 €
 - Estresaren eredu prestakuntza 49 €/hilero
 - Murrizketaren jarraipena eta gomendioak 49€ hilero

Tel. 943894428
 2017ko ekitaldiko partaide guztientzat

Garbine Arregi

Moda eta osagarriak

Herrera plaza, 5
 635 716 265

jaizgandian goizez zabaldu!

GARMENDIA

HIEZIN AGENTZIA - AHOLKULARITZA - ASEGURUAK

Ibai Ondo, 1
 Tel: 943 834 466 - Fax: 943 132 941
 informacion@garmendiagestion.com



Festetan eskatu gure sagardoa beldurririk pe!!

Abenduaren 17an BARRIKOTE afaria
 Deitu eta etorri!!

943 372 691
 630 777 346

Urdaiza baserria
 20170 Aginaga-Usurbil

K

ONDO PASA SANIKOLASAK!





ORAIN EKONOMIA

Ekonomia Susperzeko Plana

200 milioiko inbertsioa gure enpresetan 2019ra arte, gure lurraldeko ekonomia, enplegua eta ongizatea indartzeko.

**200M€
2015 > 2019**

Industria

Lehen Sektorea

Gizarteratzea

Kultura eta Turismoa